EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# Hasierako ebaluazioa Zereginen Ikaskuntzarako Geletan:

LAGUNTZARAKO DOKUMENTUAK

Dokumentu hau
Euskal Herriko Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutuan
egin dute ondokoek:
Elisabet Arrien
Eduardo Ubieta Muñuzuri
Jose Ramón Ugarriza Ocerín

# *AURKIBIDEA*

**0.- AURKEZPENA ........................................................................................4**

**1.- SARRERA ................................................................................................5**

## *1. ZATIA: ALDERDI TEORIKOAK*

**2.- EBALUAZIOAREN OINARRI OROKORRAK .................................................. 7**

**3.- HASIERAKO EBALUAZIOA: ............................................................... 13**

3.1.- Zertarako da hasierako ebaluazioa?
3.2.- Hasierako ebaluazio-prozesua.
3.3.- Nork egiten du hasierako ebaluazioa?
3.4.-Noiz egiten da hasierako ebaluazioa?
3.5.- Ebaluazio-txostena.

**4.- EBALUAZIO-TEKNIKAK:· ................................................................... 31**

4.1.- Behaketa
4.2.- Elkarrizketa.
4.3.- Bestelako ebaluazio-teknikak

## *2. ZATIA: HASIERAKO EBALUAZIORAKO MATERIALAK*

**5.- CURRICULUMAREN GAITASUN-MAILA: ..................................................... 38**

5.1.- Komunikazio-esparrua
5.2.- Autonomia pertsonalaren esparrua
5.3.- Gizarte-trebetasunei eta gizartean eta komunitatean txertatzeari dagokien esparrua
5.4.- Lan-esparrua

**6.- IKASLEEI ETA BEREN INGURUNEARI BURUZKO INFORMAZIOA:....... 54**

6.1.- Ikasleen ebaluazioa.
6.2.- Ikasleen inguruneari buruzko informazioa.

**7.- BIBLIOGRAFIA ................................................................................. 69**

## *3. ZATIA: ERANSKINAK*

**8.-ERANSKINAK: ................................................................................... 72**

8.1.- Ikasleei eta beren familiei ebaluazioa jakinarazteko txosten-ereduak.
8.2.- Informazioa jasotzeko orria.
8.3.- Ebaluazioaren berri jasotzeko orria, Eibarko PATek egina.
8.4.- Ebaluazioaren berri jasotzeko orria, Gasteizko PATek egina

# 0.- AURKEZPENA

Zereginen Ikaskuntzarako Gelak (ZIG) hezkuntza-premia bereziak izanik, Haur- eta Lehen-Hezkuntzako (garai hartan OHOko) ikastetxeetan gela arruntetan ikasi ondoren, hezkuntza-prozesua ingurune arruntean jarraitzeko arazoak zituzten ikasleei erantzuteko sortu ziren.

Txosten honek, funtsean desberdina den eredu bat hainbat urtetan esperimentatu ondoren lortutako ikuspegi idatzia, Zereginen Ikaskuntzarako Geletan banan-banako programa egiterakoan hartu beharreko erabakietan lagungarri izan nahi du, programa hori ikasleen hezkuntza-premia ezberdinetara egokitzeko, LOGSEren etengabeko ezarpenak eragindako hezkuntza-ikusmolde berriekin bat etorrita.

Helburu hori lortzeko ebaluazio-prozesua ulertzeko esparru orokorra aurkezten da, bertan banako hezkuntza-programak garatzetu ahal izango direlarik. Bestalde, ebaluazio-prozesu korapilatsuan eragin zuzena edo zeharkakoa duten aldagai ezberdinen datuak baloratu eta biltzeko prozedura bat ere proposatzen da.

Zereginen Ikaskuntzarako Geletako helburuetariko bati erantzuteko, "hpb dituzten ikasleak bizitza aktibora igarotzea ahalbidetzea" hain zuzen ere, hezkuntza-interbentzioa itxuratzen duten elementu ezberdinak ezagutzea eskatzen du hezkuntza-erantzunak, gazte bakoitzari egokitzen zaiolarik, haren ohiko giroa aintzat hartuz eta xede batzuetara bideratuz, testuinguru jakin batean eta epe mugatuen baitan.

Hezkuntza-interbentzio hori egokitzeko oinarrizko elementuen artean hasierako ebaluazioa dugu, h.p.b. dituzten gazteei zuzendutako transizio-programak garatzerakoan estrategia koherente gisa erabil dezakegularik. Proposamen hauek Zereginen Ikaskuntzarako Gelen helburuei izaera zabala damaien eta zehaztapen aukera ikastetxearen eta gizarteko ingurunearen arabera zabaltzeko aukera ematen duen ingurune batean kokatzean, irakasleek eguneroko lanean erabilgarri zaizkien laguntzak aurkitzeko hausnarketa eta iradokizun sorta bihurtzen du.

Bukatzeko, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteak bizitza heldura eta aktibora igarotzeko dituzten premiei eman beharreko erantzuna egokitzeko garaian irakasleak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu.

# 1.- SARRERA

Ebaluazio-prozesuaren bidez hezkuntza-jarduera epaitu eta aurretiaz finkatutako helburuak zenbateraino aurreratu, atzeratu edo bere horretan gelditu diren jakitea ahalbidetzen digu, hobetze aldera.

Ebaluazio-prozesuak duen garrantzia dela-eta, zereginen ikaskuntzarako programan sartu eta hasieran denbora epe malgu samarra eman behar da, eskueran daukagun informazioa osatu eta ikasle bakoitzaren banan-banako programa burutzeko aukera emango diguten ebaluazio-prozesuak garatzeko.

Hasierako ebaluazio honek ikaslearen garrantzizko informazioa biltzen du, horrela zein hpb dituen eta zereginen ikaskuntzarako gelaren helburu orokorrekin eta berariazko helburuekin bat datorren hezkuntza-programa gauzatu ahal izango dugu, gure ikasle guzti-guztien garapen pertsonal eta sozial gorena lortzeko.

Ikasleak zer ezagutzen duen eta zer egiten dakien jakin behar da, zein motatako laguntzekin hobetzen duen, nola biltzen eta prozesatzen duen ematen diogun informazioa, zenbat denboran zehar iraun dezakeen zeregin batean arreta jarrita, zein egoeratan ikasten du hobekien, zein interes eta motibazio ditu ikaskuntzarekiko.

Ikasleari buruzko informazioaz gain, bizi den inguruneari buruzkoa ere lortu beharra dago, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzen edo oztopatzen dituzten alderdiak zeintzuk diren: irakaskuntza tankera, metodologia, Zereginen Ikaskuntzarako Gelan erabilitako laguntza pertsonal, tekniko edota materiala.

Zereginen Ikaskuntzarako Gela kokatuta dagoen ikastetxea ezagutzea ere lagungarri da ingurune arrunteko irakasleekin edota ikasleekin burutuko diren arlo edo ikasgaiak txertatzearen inguruko erabakiak hartzeko; izan ere, ikasleek ezagutu edo egiten jakin beharrekoak iruditzen zaizkigun jarduerak ikastea ahalbidetzeaz gain, hezkuntza-proiektuei koherentzia damaien harremanak ezartzeko aukera ematen duelako.

Bukatzeko, familiari edo gizarte-ingurune hurbilenari (etxea, auzagunea,…) buruzko garrantzizko informazioa biltzeak elkarlanerako eta konpromezurako bideak ezartzen laguntzen du, elkarrekin burutu beharreko programak ezartzeko garaian: familia, ikastetxea; horregatik, bada, informazio-bilketarako hainbat eredu eskaintzen dira eranskinean, jorratutako alderdi ezberdinen araberakoak.

# 1. ZATIA

# Alderdi teorikoak

## 2.- EBALUAZIOAREN OINARRI OROKORRAK

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak garatzeko eskaintzen dizkigun tresnen artean ebaluazioa dugu. Gauzatzeko garaian hainbat oztopo aurkituko baditugu ere, hasierako ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesu egoki bati heltzeko berma onena dugu; ebaluazio-prozesua behar bezala diseinatuz gero, hainbat datu lortuko ditugu burutzen ari garen lana dagokion moduan aldatzeko eta, azken ebaluazio aproposa eginez gero, egoera bikainean kokatuko du ikaslea bere hezkuntza-ibilbidean jarraitzeko.

Hasierako ebaluazioa jorratzen hasi aurretik, txosten honetan jasotako materiala egiteko eta biltzeko erabilitako ebaluazio-kontzeptuari helduko diogu.

Ebaluazioa **erabakiak hartzeko prozesu**tzat hartzen da, lanean jardungo dugun taldeari eta ikasle bakoitzari eskaintzen zaion hezkuntza-prozesua definitu, aztertu, aldatu edo indartzeko behar den informazioa jasoko da prozesu horretan. Informazio-bilketa eta ikasleei emandako erantzuna esparru zehatz batean kokatzen da eta esparru hori ez da bere kasakoa, elkarri eragiten diote erantzunean bertan, hots, burutzen ari garen hezkuntza-interbentzioan.




Transmititu nahi denari buruzko zenbait adibide:

1. Ikasturte berria hasi dugu haiei buruz informazio gutxi dugun ikastalde batekin. Ikastalde horrekin egingo dugun lehenbiziko lan-saioa ebaluaziorako erabiliko dugu, haiekin burutu beharreko hezkuntza-proiektua definitu ahal izateko. Erabakiko duguna ez da soilik ikastaldearen (ikasle bakoitzaren) ezagutza eta gaitasunetan oinarrituko, aitzitik, garrantzia baduten beste elementu batzuk ere aintzat hartu beharko ditugu: Ikastetxearen Curriculum-Proiektua, ikasleen hezkuntz etorkizuna, ikasgelan zein ikastetxean eskueran dituzten baliabide material eta pertsonalak, prestakuntza eta

prestasuna bera ere, ikasleek ikastetxetik kanpo (familian, lagunen artean, auzagunean, herrian…) lortu ditzaketen laguntzak, gure irakaskuntza-kontzeptua…

2. Ikasturtea bukatzean erabaki egin beharko dugu lanean jardun dugun ikasleek haientzat erabakitako helburuak lortu dituzten. Horretarako ebaluazioa egingo dugu: informazioa bilduko dugu haien orduko gaitasunei buruz, bai haien jarduera, lortutako ikaskuntza, burututako lana, gaitasun eta jarrerei lotutako alderdiei buruz; hots, hartu beharreko erabakirako garrantzitsu deritzogun informazio guztia. Erabakiak hartzeko garaian, ikasleari berari buruzko informazio zehatzaz gain, badira alde batera utzi ezinezko hainbat erreferentzia, erabakian bertan eragiten baitute: ikaslearen aurrerapena ebaluatzeko Ikastetxeak darabiltzan irizpideak, hezkuntza-prozesua burutzeko behar zituen baliabide eta arreta eman zaizkion, zer nolako etorkizuna duen gure erabakien ondorioz, zer deritzegu ikaslearen aurrerapenari eta egoerari…

3. Hirugarren eta azken adibidea. Ikasturtearen erdian konturatu gara ikastaldeak ez duela aurretiaz finkatutako maila lortzen eta zerbait egitea erabakitzen dugu. Aldatzeko premia honezaz konturatzeko jasoa dugu jada nolabaiteko informazioa, bai formalki bai informalki, baina haien gainean gogoeta egin beharreko hainbat datu izango ditugu. Une horretan beste zerbait gehiago ere aldatu behar dugula uste izanez gero, informazioa biltzeko prozesu sistematiko bati ekingo diogu berriz ere, dagokion erabakia hartzeko. Informazio hau ez da ikasleen ikaskuntzari buruzkoa izango soil-soilik, baizik eta lanean jardun dugun irakaskuntza-egoerari buruzko datu ugari bilduko ditu halaber: proposatutako ariketa-motak, erabilitako lan-moduak, erabilitako materialak, irakasleen arteko koordinazioa…

Adibide hauen bidez ebaluazioa burutzeko garaian aintzat hartu beharreko zenbait ezaugarri aurkeztu nahi izan dira:

1**. Ebaluazio oro erabaki zehatz batean amaitzen da** (lana antolatu, interbentzio-modua aldatu, emaitzak egiaztatu…)

2. **Ebaluazioa bera prozesu bat da berez**, alde batera utzi ezin diren hainbat urrats dituena.

3. **Informazio-bilketa prozesu honetako urrats bat besterik ez da,** baina garrantzi handia dauka, jasotako datuen arabera erabaki batzuk edo beste hartuko baitira, hortaz, gogoan izan behar dira itxuraz kontraesanean dauden bi alderdi: garrantzitsu izan daitezkeen datu guztiak jaso behar dira, baina erabilgarri izango zaizkigun datuak bakarrik.




Hezkuntza-munduan eginahal ugari egiten dira irakaskuntza-prozesuan, dena den, gogoan izan beharko litzateke irakatsi ahal izateko ebaluazioa erabili beharra dagoela beti. Hezkuntzan erabilitako denbora puska handi bat ebaluatzen ematen da, irakaskuntzak ikaskuntza benetan eragiteko berma baita ebaluazio ona egitea. Baieztapenotik ondoriozta daitekeenez, ebaluazioaren hezitze-alderdia (hezkuntza-prozesuak gidatzea) nabarmentzen da, batze-alderdia beharrean (emaitzak egiaztatzea). Txosten honetan diagnosi funtzioa aipatuko dugu, hezkuntza-prozesu baten hasieran kokatzen baita.

Ikastetxe batean ebaluazioaz hitz egiten denean hiru mota bereizten dira burutzen deneko garaiaren arabera. Sailkapen honi jarraiki bereizgarri ezberdinak topatuko ditugu ebaluazio-mota bakoitzean:

**Hasierako ebaluazioa:** hezkuntza-prozesuaren hasieran egiten da eta berau antolatzea du helburu.

**Prozesuzko ebaluazioa edo ebaluazio jarraia:** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan burutzen da eta prozesua bera aldatzea du helburu, errealitate zehatzera eta lortu nahi diren helburuetara egokitzeko.

**Azken ebaluazioa:** hezkuntza-aldi baten buruan egiten da, funtzezko helburua aldi horretan burututako ikaskuntzak egiaztatzea da. (Hurrengo urratseko hasierako ebaluazio gisa ere erabil daiteke).




***Hasierako ebaluazioa***

***Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua***

***Azken ebaluazioa***

***Ebaluazio jarraia edo prozesuzkoa***

Hasierako ebaluazioa hurrengo atalean jorratuko dugu sakonago, izan ere alderdi orokorrenetan eta prozesuzko ebaluazioari buruzko xehetasunen batean oinarritzen da hurbiltze teoriko hau, eta bukaeran, gorago azaldutako hiru deskribapenetan agertzen zaigun prozesu-kontzeptuari erreparatu beharko diogu.

Prozesu hitza irakasleek diseinatutako ikaskuntza-unitate bat definitzeko darabilgu. Normalean unitate didaktikoekin lan egiten bada ere, denbora-aldi luzeagoa ere erabil genezake (hilabete, hiruhileko bat…), zenbat eta aldi luzeagoa hartu, handiagoa izango delarik prozesuzko ebaluazioak duen funtzioari emanadako garrantzia eta baliabideak. Aldi motzagoak ere erabil daitezke (mikroirakaskuntza deritzonera arte iritsiz, jarduera bakoitza bere horretan prozesua bailitzan hartzen duena).

Ebaluazioaz ari garenean, irakaskuntza-ekintza osora hedatzen den ebaluazioaz ari garela izan behar dugu gogoan. Etenik gabeko prozesua da, egoeraren diagnosiarekin hasten da -hasierako ebaluazioa- eta etengabeko behaketaren eta elkarren arteko hausnarketaren bidez

irakaskuntza-ekintza hobetu nahi du -prozesuzko ebaluazioa-. Prozesu honetan une jakin bateko ondorio edo balorazio orokorrek -azken ebaluazioa- ez dute prozesua bera etengo, aitzitik, erabaki eta ekintza berrietara eramango du, eta hauek ere ebaluatu egingo dira berrelikatze-mekanismo jarrai batean.

Ikuspegi honen arabera hainbat bereizgarri topa ditzakegu **ebaluazioan**:

- **JARRAIA:** Hots, eskola-prozesu osoan zehar egiten den. Lortutako emaitzek prozesuko zenbait alderdi aldatu, egokitu edota albo batera utzitakoei berriro ere heltzeko balio izatea da ebaluazioaren ezaugarri nagusia.

- **BATERABILDUA:** Prozesuko partaideen ikusmoldeak biltzeko, ebaluazioaren funtsa diren irizpide eta adierazle ugariak aintzat izanik.

- **BANAN-BANAKOA:** Pertsona bat, talde bat edo ikastetxe bat eta beren prozesua aztertzen da, norbanakoen edota taldearen ezaugarriak, testuingurua, egoera, aukerak eta mugak aintzat hartuta.

Arestian egindako sailkapenera itzuliz gero, esan genezake ikastetxeetan **prozesuzko ebaluazioa edo ebaluazio jarraia** egin ohi dela, baina plangintza bati jarraitu gabe. Irakasleek beren interbentzio-moldea aldatu ohi dute, beren lanak espero izandako fruituak ematen ez dituela ikusiz gero. Aldaketok unean unekoak eta aldi baterakoak izan daitezke (eskolak eman bitartean plangintzako hainbat alderdi aldatzen dira, espero dugun ikaskuntza lortzen ez dela ikustean), edo gogoeta baten ondorengoak, eskolak eman beharrean plangintza prestatzen edo nola jarraituko dugun pentsatzen ari garenean.

Aldakuntza-mota honek hezkuntza-interbentzioa taldearen premia zehatzetara hobeto egokitzeko aukera ematen digu; halere, sistematizaziorik ezak ahuldu egiten ditu interbentzio horietako asko, nahiz erabili diren garaian egokiak izan diren, eta ez dira irakasleek kontzienteki erabilitako estrategietan jasoko. Horretantxe datza irakaskuntza-esperientzia deritzoguna hein handi batean, sistematikoki jasotzen ez dela eta, zail gertatzen da profesionalek haien berri elkarri ematea.

Behaketako eta informazio-bilketako hainbat elementu ebaluazio-prozesu jarrai batean sistematizatzeak egundoko garrantzia du saiakera-errore teknika hausnarketan oinarritutako aldakuntza-prozesu bihurtzeko. Bestela esanda, ebaluaketa jarraiak hezkuntza-prozesuko une egokietan erabaki aproposak hartzeko gakoak eskain ditzake.

Bestalde, **azken ebaluazioa** dugu, ikastetxeetan erabilien eta kontrolatuena, bai ikaskuntza-prozesu baten azken zehaztapen gisa, bai prozesua jarraitzeko garaian ikaslea orientatzeko tresna gisa. Bi alderdiak aipatu behar dira, bata bestea gabe burutzeak ikastetxean eta ikasgelan burutu beharreko lanerako garrantzizko erreferentzia bat gabe uzten baikaitu.

Azken ebaluazioaz ari garenean, kontzeptua ez da soilik ikasturte amaierako uneaz ari, hezkuntza-prozesuaz baizik, eta prozesu hori egindako programazioaren araberakoa izango da. Honela bada, gai bat, garai bat, hiruhileko bat, edo hezkuntza-interbentzioa burutzeko erabilitako denbora amaitzean aritu gaitezke azken ebaluazioaz. Ikuspegi honetatik, azken ebaluazio on bat izango dugu hasierako ebaluazio onena, hasiko dugun programaziorako datu zehatzak eskaintzen ditu eta.

Kontzeptu orokor hauek beren bereizgarriak dituzte zereginen ikaskuntzarako gelei dagokienean. Ikasgelan lan egiteko moduaren ezaugarriek, ikasgelotan dabiltzan ikasleen definizio zehatza, profesionalen banaketa funtzionala, taldean lan egiteko aukera/premieak, ikasgelotan behar bezala jarduteko balio handiko tresna egiten dute ebaluazioa.

## 3.- HASIERAKO EBALUAZIOA:

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoari ekitea bera ebaluazio bat da bere horretan. Sekulako garrantzia dauka ebaluazio horrek eta agertu ezean prozesuaren gaineko kontrola galtzen dela esan daiteke.

Finkatutako hezkuntza-sistema batek (zereginen ikaskuntzarako gelak barne) egin beharrekoen artean ikaskuntza-prozesua kontzienteki norabide jakin batean eta ez beste batzuetan gidatzea dugu. Ikasleak ez dira egunero ikastetxera joaten edozer ikasteko, horretarako egindako ahaleginen bidez hainbat trebetasun zehatz lortzeko baizik; zereginen ikaskuntzarako geletan etorkizunean, bai maila pertsonalean bai lan-alorrean erabilgarri izan dakizkieken trebetasunak garatuko dira.

Irakaslea finkatutako eremu batean (kasu honetan Zereginen Ikaskuntzarako Geletarako Curriculum-Eremuan edo besteren batean) epe jakin batean lan egingo duen taldearekin hasi aurretik, kokatu egin behar ditu taldea den horretan batetik, eta osatzen duten pertsonak eremuarekin harremanetan bestetik, burutuko den interbentzioa zehaztu ahal izateko.

Ikuspegi honen arabera eta geroko ekarpenak kokatuko dituen definizio bat erabiltzearren zera esan genezake: *“hasierako ebaluazioa ikasle-talde baten gaitasun eta beharrak, eta kokatzen deneko ingurunea ezagutzean oinarritutako hezkuntza-interbentzioa antolatzeko erabakitze-prozesua dugu.”.*




Ikus daitekeenez ebaluazioaren funtsezko elementu batzuk jasotzen ditu definizioak:

*"Hasierako ebaluazioa ... erabakitze-prozesua da.":* hots, badira irakasleek beraiek hartu beharreko hainbat erabaki, eta horien araberakoa izango da ikasgelan burutuko den lana.

*...hezkuntza-interbentzioa antolatzeko balio duena...:* ikasgelako lanaren plangintzan eta eguneroko zereginarekin zerikusia duten elementuen zehaztapenean gauzatzen dira erabaki hauek.

*...ikasleen gaitasun eta premietan oinarrituta..:* erabaki hauek hartzeko taldea osatzen duten pertsonen egoera aztertu beharko da, talde gisa eta norbanako gisa. Ikasgelako lan-esparrua gogoan izanik egingo da azteketa, ikasleen gaitasuna definitzen saiatuko garelarik burutu beharreko curriculumaren eta ikasleen premien arabera.

*...eta kokatuta dagoen ingurunearen ezaugarriak":* hezkuntza-interbentzioa kokatzen deneko inguruneari, ikasgelari, gizarte- eta familia-inguruneari buruzko datuak eta lortu nahi den aurrerabidea erraztu/zaildu dezaketen bestelako datuak ere aintzat hartu beharko dira.

## 3.1.-Zertarako hasierako ebaluazioa?

Hasierako ebaluazioa hezkuntza-prozesuaren hastapen gisa hartuta, bete beharreko zenbait oinarrizko funtzio ditu, besteak beste:

- Ikaslearen aurretiazko ezagutzak zehazteko balio du, burutu nahi den curriculumaren eta ikasleen beharren arabera.

- Ikaslearen inguruneari buruzko informazioa ematen du: irakasleak, ikasgelako baliabideak, beste taldeekin elkarrekintzan jarduteko aukerak…

- Ikaslearen gizarte- eta familia-inguruneari buruzko datuak ematen ditu, ikaskuntza-prozesuan dauden itxaropenei buruz, familiaren laguntza eta harekin batera jarduteko aukerei buruz, ikasleen garapenean eragiten duten alderdiei buruz…

- Ikasle batekin burutuko den hezkuntza-interbentzioa finkatzen du, bere adinari dagozkion gaitasun funtzionalak garatzeko beharrezko izanik, gabeziak dituen alderdiei lehentasuna emanez.

- Ezagutza eta gaitasun berriak bereganatzeko ikasleak darabiltzan ikaskuntza-estrategiak zehazten ditu, irakaskuntza eraginkorragoa ahalbidetuz.




- Ebaluazioen esparrua kokatzen du, hori izango delarik burututako irakaskuntza-prozesuan lortutako aurrerabidea egiaztatzeko erreferentea.

Funtzio horiek aztertzean hasierako ebaluazioa lanabestzat hartzen duen kontzeptura itzultzen gara behin eta berriz. Horregatik ezin ahaztu egiten duena erabaki bat hartzea dela: ikasle jakin batekin esparru zehatz batean (taldea) jorratuko diren helburu eta edukiak zehaztu. Esparru hori ingurune zabalagoan (ikastetxea) eta hezkuntzari dagokion beste batean (zereginen ikaskuntzarako gelen curriculuma) kokatzen da.

## 3.2.- Hasierako ebaluazio-prozesua

Hasierako ebaluazioan burutu beharreko lana lekutzen duten hiru une nagusi ditugu, bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu eta irakasleek ikuspegi ezberdinetatik eta bakoitzari garrantzi ezberdina emanez heltzen diete. Zereginen ikaskuntzarako gela batean aurkituko ditugun uneak:

1.- Hasierako ebaluazioaren helburua
2.- Informazio-bilketa.
3.- Erabakitzea (plangintza)

Oso denbora-tarte ezberdinak behar dira urrats bakoitzean, luzeena informazio-bilketa delarik, halere, nabarmen da prozesua kontzienteki jarraitzeak duen garrantzia, izan ere, ebaluazioaren araberakoa eta kokatzen deneko esparru zehatzaren definizioaren araberakoa izango baita informazio-bilketa.




Hezkuntza-lana ez da parametro eta aldi finkoak jarraitzen dituen prozesu lineala, baizik eta hausnarketaren ondoriozko aurrerapena, interbentizoa abiatzen deneko premisak behin eta berriz aintzat hartzera behartzen duena, hauek berriro ere aztertuz eta zalantzan jarriz edo berretsiz, baina, ekintza aldatuz beti ere.

Inguruabar honi hasierako ebaluaziotik helduz gero, hezkuntza-lanean erabilgarri gerta dakizkiguketen hainbat gogoeta topatuko ditugu:

- Normalean hasierako ebaluazioa ahalbidetzen duen esparru edo ereduzko prozesu bat badagoen arren, bereganatu egin behar dute irakasleek beren hezkuntza-egoerako baldintza eta premia berezietara egokitzeko.

- Hasierako ebaluazioa konpondu beharreko egoera arazotsu zehatz baten gainean gogoeta egiteko garaia denez, (kasu honetan ikasle baten gaitasun eta beharrak definitzea interbentzio egokiena antolatu ahal izateko), **prozesuaren sistematizazioak** benetan informazioa ematen duten alderdiak zehazten laguntzen dute, egindako ahaleginak alferrik gal daitezela saihestuz.

- Jarraitzen den prozesua edozein delarik ere, **erabilgarritasuna, soiltasuna eta eraginkortasuna** uztartu beharko ditu, ebaluatzeko ahaleginen artean eta egindako plangintzaren bidez lortutako emaitzen artean desorekarik sor ez dadin.

- Azkenik, ezin ahaz daiteke ebaluazio-prozesua bera prestakuntza-prozesu bat dela. Ikasle batekin datuak lortzeko eta erabakiak hartzeko lan egitean, erabakiak ikaslearekin batera hartzean, edota hasierako ikaskuntza-egoera bat zehazterakoan ere, ikasten ari da ikaslea, bere garapenerako erabilgarri zaizkion zenbait gaitasun eta ezagutza barneratzen ari da.

Arestian zedarritutako hiru uneek gogoan izan beharreko zenbait bereizgarri dituzte, prozesuaren definizioari eusteko baino elementuok prozesura eransteko.

## *1.- Hasierako ebaluazioaren helburua:*

Arestian hasierako ebaluazioak izan ditzakeen helburu ezberdinez jardun dugu, planteamendu orokor batetik egin ere, ikastetxe baterako eta zereginen ikaskuntzarako gela baterako zehaztu beharko direlarik. Burutuko dugun hasierako ebaluazioaren bidez zer lortu nahi dugun zehaztu beharra dago.

Ez da gauza bera "ikasle honekin egin beharreko lana antolatzea interesatzen zait" bezalako galdera ireki eta orokor batetik abiatzea, ondoko galderaren bidez zehaztea baino: "ikasle honengan zein komunikazio-alderdi funtzional sustatu behar ditudan jakin nahi dut". Bigarren planteamenduak erraztu egiten du zeregina, kokatu egiten du egin beharreko informazio-bilketa, eta saihetsi egiten du benetan interesatzen zaiguna konpontzen asko lagunduko ez lukeen lana.

Hau esan ondoren ezin ahaz dezakegu zereginen ikaskuntzarako gela bateko hasierako egoeran, ikasturte hasieran zein, batez ere, ikaslea lehenbiziko aldiz iristen zaigunean, irakasleen interesak, hots, bere buruari egiten dizkioten galderak, asko eta oso zabalak izan ohi direla. Horregatik bada, sortutako galderak zehazten saiatzeak erraztu egingo digu lana. Informazioa biltzeari ekin aurretik egin daitekeen galdera-zerrenda eskaintzen dizuegu honekin batera, ziurrenik infomazio-bilketa hori zehazten lagunduko diguna.

**Ikaslearekin zerikusia duten zenbait galdera**

- ✎ Komunikazio-alorreko zein gaitasun funtzional sustatu behar dira?
- ✎ Norbere buruaren zainketa-alorreko zein gaitasun funtzional landu behar dira?
- ✎ Etxeko bizitzarako zein gaitasun funtzional sustatu behar dira?
- ✎ Komunitateko zein baliabide erabiltzen ikasi behar du?
- ✎ Osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten zein alderdi sustatu behar dira?
- ✎ Astia eta aisiako zein gaitasun eskuratu behar ditu?
- ✎ Lanerako zein gaitasun funtzional sustatu behar dira?
- ✎ Komunikazio-alorreko zein alderdi barneratu behar dira?
- ✎ Autonomia pertsonaleko zein alderdi garatu beharko dira?
- ✎ Gizarte-trebetasunen alorreko eta lan-munduratze alorreko zein alderdi sustatu behar dira?
- ✎ Lan-mundura sartu aurreko zein jarraibide lehenetsi behar dira?
- ✎ Zeintzuk dira beren ikaskuntza burutzeko estrategia aproposenak?
- ✎ Izaera funtzionaleko zein gizarte-trebetasun garatu behar dira?
- ✎ Nola erraztu daiteke ikaskuntza?
- ✎ Zein interbentzio-motek laguntzen diote ikasten?
- ✎ Aipatutako zein alderdi garatu daitezke hezkuntza-esparru ezberdinetan?
- ✎ …

**Taldearen funtzionamendu orokorrarekin zerikusia duten zenbait galdera:**

- ✎ Nola antolatu lanerako denbora ikasgelan?
- ✎ Talde honetan, prestakuntzako zein alderdi lehenetsi beharko lirateke?
- ✎ Nola landu daiteke esparru bakoitza?
- ✎ Nola antola daiteke ikasgela ikasle bakoitzaren helburuak lortzeko?
- ✎ Zer-nolako aukerak daude denbora beste talde batzuekin banatzeko?
- ✎ Nola antolatu lana beste gela batzuetan eta beste talde batzuekin, ZIGeko ikasleentzat onuragarri izan dadin?
- ✎ Nola koordina daiteke irakasleek taldean burutu beharreko lana?
- ✎ Nola koordina daiteke lana beste talde eta gela batzuetan?

Ikus daitekeenez, burutu gabeko zerrendak dira, irakasle bakoitzak bere esperientziaren edo interbentzio-moduaren arabera erabilgarrien zaizkion galderekin osatu beharrekoak. Nolanahi ere, informazio-bilketa txukun bati heldu aurretik egin nahi dena zehaztearen garrantzia txosten honetan barrena sustatzen saiatzen ari garen hausnarketa-prozesu praktikoaren baitan kokatzen da. Irakasleak bere informazio-beharrak eta bere interbentziorako ebaluazio-prozesu aproposak zehazterakoan, benetan egiten ari den horri buruz eta gauza bat, eta ez bestea, hautatzeari buruz pentsatzeko aukeran oinarritzen da.

Hasierako ebaluazioaren bidez erantzun nahi diren galderak zedarritzen denbora emateak lana egituratu eta errazteaz gain, interbentzioaren ardura hasieratik bere gain hartzeko jarreran kokatzen ditu irakasleak.

## *2.- Informazio-bilketa.*

Hasierako ebaluazioaren bigarren fasea, ebaluazio-prozesu ororekin bat datorrena, informazio-bilketa dugu. Fase korapilatsua da eta zail da egin nahi dugunerako behar ditugun datu guztiak jasotzearen eta soilik hartu beharreko erabakirako beharrezkoak direnen arteko orekari eustea, alegia, behar besteko informazioaren eta gehiegizko informazioaren arteko oreka lortzea. Informazioa biltzen duenak ezagun ez zaizkion datuak dauden susmoa dauka askotan, baina gogoan izan behar da gehiegizko informazioa informazio gutxiegi bezain arriskutsua dela askotan, izan ere, erabiltzen diren aldagaiak hain zabal eta barreiatuak dira askotan, ezin dela sekula hartutako erabakiekin bat etorri.

Arazo honi dagokionez, ulertu beharra dago hezkuntza-prozesu batean, besteak beste, bi informazio-mota ezberdin erabiltzen direla.

- Batetik *egoera bat zehazteko erabilgarri zaigun informazioa* dugu, lanean erabiliko ditugun aldagaiak ezagutu eta zedarritzeko, erabakiak hartzeko balio zaigun informazioa da, batez ere, zer landu galderarekin zerikusia duten erabakiak, hots, helburuak, edukiak eta ariketak bezalako curriculumeko alderdiak.

- Era berean, *egoera bat ulertzen laguntzen digun informazioa* dugu, zer gertatzen den eta zergatik gertatzen den horrela. Informazio hau pertsonak dituen arazoekin, bere historiarekin eta bere inguruneko hainbat alderdirekin zerikusia duten alorrei egiten die erreferentzia. Agian ez da oso informazio oparoa izango zer landu behar den erabakitzeko, baina askotan oso erabilgarri izango zaigu nola lan egin behar den jakiteko.

Hezkuntza-munduan, gainerakoek baino gaitasun edo aukera urriagoak dituzten pertsonekin lan egiten den inguruetan bereziki, zer gertatzen den eta ikasleak errealitateari nola egiten dion aurre jakiteak interbentzio-modua erraz dezake hein handi batean. Dena den, informazio-mota honetan egiten da zailen informazioa lortzeko eginahalaren eta informazio horren erabilgarritasunaren arteko oreka lortzea.

Behar den informazioak bat etorri behar du daukagun helburuarekin, aurretiaz egin diren galderekin. Hasiera batean nabarmen dirudi dirua erabiltzeko gaitasunekin lotutako beharrak ezagutzeko ez dela izakerari buruzko galde-sorta egin beharrik, dena den, erabilgarri izango zaigu familiaren baitan edo aisialdian dirua erabiltzeko dituen aukera errealak ezagutzea.

**ONDOKO ALDERDIEI BURUZKO INFORMAZIOA JASO DAITEKE**




Honela bada, egin ditugun galderetatik abiatuko da jasotako informazioa, baina ezin alde batera utzi erabakiak hartzeko garaian ere erabilgarri gerta dakigukela. Hortaz, funtsezkoa da erabiliko ditugun ebaluazio-tresnak ondo hautatzea.

Auzi honi buruz geroago atal bat erabiliko dugun arren, aipatu beharra dago tresna batzuk beste batzuk baino hobeak direla egia bada ere, lanean dihardugun alderdi zehatzean (zereginen ikaskuntzarako gela) tresna bat erabilgarri den ala ez irakasleak erabiliko duen modu

zehatzaren baitan egongo da. Tresnak ez dira berez on edo txarrak, erabilgarri izango dira, ala ez, lortutako informazioak hartutako erabakiekin zerikusirik duen heinean.

Gorago aipatu dugunez jaso beharreko informazioak egindako galderekin bat etorri behar du, halere, aproposa izaten da informazioa zein alorretan jaso ohi den eta zereginen ikaskuntzarako gela batean lan egiteko garrantzizko elementu gehien ematen dituzten alorrak zeintzuk diren jakitea.

Aurreko irudian informazioa zein eremutan lor dezakegun adierazi dizuegu eta txosten honen bigarren zatia puntu horien arabera egituratu dugu.

### *3.- Erabakitzea (plangintza)*

Ebaluazioaren hirugarren unea erabakitze-garaia dugu. Fase honek lotura estua du lehenbizikoarekin, hemen hartuko diren erabakiak fase horretan egindako galderen erantzuna izango baitira.

Irakasle jakin batekin landu beharreko gizarte-trebetasunak zehaztu nahi izanez gero, alderdi horri buruzkoa izango da informazio-bilketa eta horri buruzkoak, halaber, hartutako erabakiak.

Askotan erabaki hauek hartzeko une formala egoten den arren -prozesuan parte hartzen duten pertsonek duten informazioa elkarri aurkeztu eta lana antolatzen hasteko hartutako erabakiak jasotzen diren garaia-; erabakiak hartzeko prozesua ez da puntuala izaten: informazioa bildu bitartean hartuko diren erabakiak zirriborratuz joaten gara, eta zirriborro horretxek egokitzen du informazio-bilketa, geroz eta zehaztasun handiagoz egokitu ere lortu nahi den erantzunera.

Nolanahi ere, zenbait alderdi on ditu erabakitzea burutzeko une jakin bat egoteak: egoerak argitzeko balio du, egoera horiei buruz hitz eginez eta lanean parte hartzen duten pertsonen interbentzioa bateratuz; hartutako erabakiak jasotzeko balio du, idatziz hasiera batean nahiz ez ezinbestean eta erabilgarria da lana antolatu eta ondoren aztertzeko funtsezko erreferentzia izango baita.

Ikaslearekin jorratuko diren edukiei buruzko erabakiak hartu behar izaten dira. Hona hautaketa hori egiterakoan erabil daitezkeen zenbait irizpide:

1.- Ikasleen ezaugarrietara moldatzeko gaitasuna.

2.- Ikasleen adina (normalean 16-19 urte bitartean)

3.- Eguneroko bizitza egiten duten testuinguruaren arabera dituzten premiak.

4.- Irakatsiko denaren funtzionaltasuna, hau da, ikasi dena praktikan erabiltzeko aukerak.

Azken puntu honi dagokionean, erabaki garrantzitsua da eduki funtzionalak hezkuntza-programa akademikoetan nola txertatu, batez ere ikasgela arruntetako curriculumeko alderdiak egokitu nahi ditugunean.

Eduki funtzionalak alor akademiko bakoitzeko edukiekin harremanetan jartzea da teknika bat, ikaskuntza-helburu bakarrean txertatu eta jarduera berean landuko direlarik. Thomas-ek (1.985) ondokoa proposatzen du:

| ALORRA | PROZEDURA |
|---|---|
| **MATEMATIKAK** | • Komunikatzen den informazio-mota zenbakien bidez nabarmendu: adina, garaiera, jantzien neurria, telefono-zenbakia, gizarte-segurantzakoa, nortasun-agirikoa,…<br>• Prozesu matematikoak praktikan erabili: neurria, eragiketak txanponekin, soldatak kalkulatu eta kenkariak zenbatu.<br>• Matematikek eguneroko bizitzan duten erabileraren norainokoa aztertu: etxerako aurrekontuak egin. |
| **HIZKUNTZA** | • Ikasleari lanbide ezberdinetan hizkuntzaz egiten den erabileraren berri eman: rol-jokoen bidez, formularioak eta inprimaki ofizialak betez, merkataritzako gutunak idatziz, telefonoa erabiliz. |
| **GORPUTZ-HEZKUNTZA** | • Ariketa elikadura eta osasunarekin uztartu: ahoaren higienea, kanpo-itxura zaindu,… |

## 3.3.- Nork egiten du hasierako ebaluazioa?

Zereginen ikaskuntzako gelan, eta bere ingurune hurbilean, badira ebaluazio-prozesuan parte har dezaketen hainbat profesional. Pertsona hauetako bakoitzaren partaidetza ebaluazioaren edukinaren araberakoa izango da.

Profesional horiek gelan lan egiten dutenak dira nagusiki; hots, irakasle espezialistak eta lantegiko maisu-maistrak. Profesional hauek hasi, antolatu eta zehaztu egiten dute hasierako ebaluazio-prozesu osoa, dena den, ikastetxeko orientabide-taldearen laguntza izan dezaketelarik bai prozesua zehazteko, bai funtsezko irizten zaion berariazko informazioren bat jasotzeko. Ikastetxetik atera gabe, gela hauetako ikasleek beste talde batzuekin denbora edota espazioa banatzen badute, gelako irakasleen laguntzak aberastu egin dezake prozesua.

Era berean, eta premia zehatzak daudenean, talde multiprofesionalak ditugu, hauek hasierako ebaluazio prozesuan parte har dezakete aholku emanez, batez ere datu-iturri egokia direlako, ikaslearen jarraipena egin baitute hezkuntza-prozesu osoan zehar.




## 3.4.-Noiz egiten da hasierako ebaluazioa?

Denbora behar du hasierako ebaluazioak, baita ikasturteko laneko denbora-puska ederra ere. Egingo denaren plangintza ona egiteak lana erraztuko duela benetan sinesten badugu, behar beste denbora emateak duen garrantzia ulertuko dugu orduan. Bestalde, hasierako ebaluazioan emandako denbora lanerako denbora da, dagoeneko jorratu ditugun jarduerak gogorarazteko denbora, taldea sortu eta harreman- eta interbentzio-motak zehazteko denbora. Zail da denbora-tarte jakin bat zehaztea, baina ez dirudi hilabete edo hilabete t'erdi gehiegi denik.

## 3.5.- Ebaluazio-txostena

Hasierako ebaluazioan ebaluazio-txostenaz mintzo garenean, informazio-bilketa eta erabakitzea errazten duten tresnak aipatu behar ditugu. Hezkuntza-prozesuko fase honetan informazioa ez da kanpo aldera zuzentzen: irakasleei, hezkuntza-estamentuei edo bestelako zerbitzueei, baizik eta ikasgelan eta ikastetxean bertan gelditzen da, lanerako material gisa.

Ikasleak berak eta bere familiak ezagutu behar dute egiten den hezkuntza-proposamena, jakina, eta hau Banako Hezkuntza-Planan jasotzen da. Plan hau ebaluazioan oinarritzen da, baina ez da berez ebaluazio-txosten bat.

Jarraian hasierako ebaluazioa jasotzeko tresnen inguruko bi proposamen aurkezten ditugu. Lehenbizikoa egiteko zereginen ikaskuntzarako gela zehatz batean oinarritu gara eta horrek ikastetxe zehatz baten funtzionamenduan oinarritu izanaren alde ona dauka (1. proposamena). Bigarrenean txosten honetan jorratu diren alderdi ezberdinak jasotzen saiatu gara. Proposamen hau burutzeko ikasgela zehatz bakoitzaren premia eta funtzionamendura moldatu beharra dago (2. proposamena).

## *DATU PERTSONALAK*

Abizenak:
Izena:
Jaioteguna:
Telefono-zenbakia:
Ikastetxea: Herria:
Hizkuntz eredua:
-Gaztelera-maila:
-Euskara-maila:
-Etxeko hizkuntza:

## *ESKOLAKO DATUAK*

**Esparruetan lortutako gaitasun-maila:**

**1.-Komunikazioa:**

**1a) Hizkuntza: Eusk. Gazt.**

-Ahozko ulermena
-Mintzamena
-Idatzizko ulermena
-Idatzizko adierazpena
-Hiztegia
-Irakurketa-idazketak

**1b) Matematikak:**

-Zenbaki-kontzeptua
-Eragiketak
-Arazoen ebazpena
-Neurriak
-Eskuratutako bestelako kontzeptuak

**2.-Autonomia pertsonala:**

-Itxura
-Norbere buruaren zaintza

**3.-Gizarte-trebetasunak eta komunitatean txertatzea:**

-Pertsonen arteko harremanak
-Arauetarako moldaera
-Partaidetza talde-lanean edota elkarlanean
-Norbere buruari buruzko ustea/autoestimua
-Besteekiko tolerantzia
-Etsipenari aurre egiteko gaitasuna
-Inguruaren ezagutza eta moldaera bertan

-Garraioa, telefonoa eta abarren erabilera
-Aisia eta astia

**4.-Lanean hasi aurreko esparrua:**
-Interesik gehien duen jarduera
-Gauzak manipulatzeko gaitasuna
-Lan-ohiturak
-Segurtasuna eta higienea
-Ordenua, lan-sekuentziak jarraitzea
-Lanabesak erabiltzea
-Arreta

**Nola ikasten du:**
-Zein egoeratan ikasten du hobekien
(bakarka, talde txikian, handian,…)
-Nola jasotzen eta prozesatzen du informazioa
-Zenbat denboran zehar izan dezake arreta zeregin ba
-Zein zeregin atsegin ditu eta egiten ditu seguruen
-Zein sari-motak animatzen du gehien

**Gizarte-ingurunea:**

**Zailtasunak eta behar duen laguntza-mota:**

**Interbentziorako proposamenak:**

**DATUAK**

**IKASTETXEA:**

**IKASLEA:**

**JAIOTEGUNA:** **ADINA:**

**NONDIK DATOR:** **IKASTETXEA:**

**EREDUA:**

**HASIERAKO EBALUAZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK:**

Irakasle espezialista: ...

Lantegiko maisu-maistra: ...

Orientatzailea: ...

E.M.P.: ...

Bestelako profesionalak: ...

## EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK
## (Hartu beharreko erabakiak)

**a) Ikaslearen curriculumari dagokionez:**

**b) Ikaslearen lan-moldeari dagokionez:**

**c) Ikasgela/ikasetetxeko antolatze-elementuei dagokionez, ikaslearekin hobe lan egiteko:**

# DATU GARRANTZITSUENEN BILKETA

## IKASLEAREN CURRICULUM-GAITASUNA

**Komunikazio-esparrua:**

| GAITASUNAK | PREMIAK |
| --- | --- |
| | |

**Autonomia pertsonalaren esparrua:**

| GAITASUNAK | PREMIAK |
| --- | --- |
| | |

**Gizarte-gaitasunen eta gizartean eta komunitatean txertatzearean esparrua:**

| GAITASUNAK | PREMIAK |
| --- | --- |
| | |

**Lanean hasi aurreko esparrua:**

| GAITASUNAK | PREMIAK |
| --- | --- |
| | |

# DATU GARRANTZITSUENEN BILKETA

## IKASLEAREN CURRICULUM-GAITASUNA

**Motibazioa:**

| EGOERA | PREMIAK |
|---|---|
| | |

**Interesak:**

| EGOERA | PREMIAK |
|---|---|
| | |

**Ikasteko modua:**

| EGOERA | PREMIAK |
|---|---|
| | |

**Bestelakoak…:**

| EGOERA | PREMIAK |
|---|---|
| | |

# DATU GARRANTZITSUENEN BILKETA

## IKASLEAREN INGURUNEA

**Hezkuntza-ingurunea:**

| | EGOERA | PREMIAK |
|---|---|---|
| **gela** | | |
| **irak.** | | |
| **ikast.** | | |

ikasgela/irakasleak/ikastetxea

**Familia-ingurunea**

| EGOERA | PREMIAK |
|---|---|
| | |

**Komunitate-ingurunea:**

| EGOERA | PREMIAK |
|---|---|
| | |

# BEHARREN ZEHAZTAPEN OROKORRA

## ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

**a) Ikaslearen curriculumari dagokionez:**

**b) Ikaslearen lan-moldeari dagokionez:**

**c) Ikasgela/ikastetxeko antolatze-elementuei dagokienez, ikaslearekin hobe lan egiteko:**

# 4.- EBALUAZIO-TEKNIKAK

Atal hau jorratzen hasi aurretik, irakasleek hasiera batean eskatzen dutena informazioa dela izan behar dugu gogoan. Ikasle berri bat taldera iristean erantzun beharreko galdera ugari sortuko dira, eta horregatik ikasleari buruz informazio argia, zehatza, erabilgarria, egiazkoa eta baikorra izateak irakaslea lasaitu eta aurre egin beharreko egoerari errealismoz heltzeko aukera ematen dio.

Esan gabe doa ikasle bat zereginen ikaskuntzarako gela batera iristean hezkunta-historia luzea duela atzetik, horrela bada, behar den informazio asko jasota dauden datu idatzietara joz (ACI, txostenak…) edota, beste ikastetxe batetik etorriz gero, ikasle horiekin aurretiaz lanean jardun dutenengana joz lortu daiteke. Pedagogi-Aholkutegietako Talde Multiprofesionalen funtzioen artean informazio-transmisioa bermatzea dugu.

Ikaslearen historia edo ibilbidea ezagutzeak alde ona badu, baina izan dezake, halaber, alde txarrik ere, ikaskuntzan topatzen dituzten zailtasunek eragindako itxaropen txikiaren ondorioz hain zuzen ere. Aurretiazko informazioa erabilgarria da lana antolatzeko, aurrerapenari buruzko iragarpena egokitzeko eta, batez ere, errealistak izateko. Halere, ezin ahaz dezakegu hezkuntza-lanaren baitan adoretzea eta aurreratzeko aukeretan sinistea balio handiko lanabesak ditugula.

Hasierako ebaluaziorako informazioa biltzeko prozesuan lana erraztuko diguten hainbat teknika eta tresna erabil ditzakegu. Atal honetan barrena zereginen ikaskuntzarako geletan gehien erabiltzen diren teknika-motak aurkezten dira azal-azaletik. Azalpen xeheagoa nahi duenak hainbat erreferentzia aurkituko ditu bukaeran ageri den bibliografian.

Beti terminologia berbera ez badarabilgu ere, txosten honetan **teknika** hitzaren bidez informazioa lortzeko erabilitako metodoa esan nahi da eta, **tresna** hitzaren bidez, berriz, informazio hori lortzeko erabilitako baliabide zehatza. Honela bada, behaketa erabil daitezkeen tekniketako bat dugu, eta erabilitako informazioa jasotzeko orri zehatza behatutakoaren tresna. Beste tresna bat galde-sortak ditugu, eta komunikazio-gaitasunei buruzko galde-sorta zehatza, adibidez, tresna izango litzateke.




Teknikak ezagutzearen garrantzia behar bezala erabili eta interpretatzean datza. Teknika bakoitzak ezaugarri batzuk ditu eta erabilgarriago izango dira datu batzuk eta ez beste hartzeko; elkarrizketa baten bidez aisia nola darabilten jakin dezakegu, baina lanabesak erabiltzeko mugimenezko gaitasunak zuzeneko behaketaren bidez azter ditzakegu hobeto.

Txosten honen bigarren zatian banan-banako hezkuntza-plana antolatzeko informazio-bilketarako hainbat tresna aurkezten dira. Profesional bakoitzak bereak garatzeko oinarritzat har ditzaketen adibideak dira. Beste batzuek landutako tresna erabiltzen dugunean, zer testuingurutan sortu den eta osagai bakoitzaren nondik norakoa ezagutu beharra dago. Probetxugarriago izaten da beste norbaitek egindakotik abiatuta norberak berea sortzea, alderdi ezberdinak erabiliko diren egoerara egokituz.

Beste ebaluazio-teknika batzuk ere badauden arren, hona gehien erabiltzen direnak eta hezkuntza-inguruneari buruzko informazio gehien ematen dutenak:

1. Behaketa
2. Elkarrizketa
3. Egunkaria
4. Galde-sorta
5. Proba estandarizatuak

## 4.1.- Behaketa

Informazioa biltzeko teknika oinarrizkoena dugu, zuzenean ikaslearen portaeratik lortzen baitira datuak. Egora desberdinetan eginez gero, pertsonak testuinguru ezberdinetan nola moldatzen diren ikusiko dugu: prozedurak gauzatzean; ikaskideekiko harremanean; zeregin berri bati heltzean, gutxiago egituratutako giroetan, esaterako txangoetan, jolasorduan,…

Behaketak azterketa arazoak sortzen direneko egoeran kokatuta egiteko aukera ematen du. Dena den, behaketa oro ezin erabil daiteke azterketarako, azterketarako tresna izan ahal izateko nahitakoa behar du eta datu-bilketa ardaztu eta egituratuko duen helburu zehatza izan behar du.

**1.** Behaheta egiteko interbentzio-prozesu zehatza definitu beharra dago: aurreneko urratsa behatu nahi dena zehaztu eta zedarritzea izango da, zehaztapen honek lotura estua du hartu beharreko erabakiekin. Behatuko dena zenbat eta gehiago zehaztu, orduan eta egokiago eta erabilgarriagoa izango da lortuko dugun informazioa. (Batzuetan, prozesuak hasterakoan bereziki, behaketa zabal eta gutxi egituratuak taldean eta ikaslearen baitan gertatzen dena ulertzeko informazio erabilgarria emango digula ahaztu gabe).

**2.** Bigarren urratsa informazioa biltzeko tresna bat hautatu edo egitea izango da. Behaketaren helburuak bezalaxe, tresnei dagokienean ere, behatu nahi duguna zenbat eta zehatzagoa izan, orduan eta zedarrituagoa egongo da tresna ere eta behatutako egoeraren alderdi zehatzagoei erreparatzeko aukera izango dugu. Aitzitik, egoerarako lehenbiziko hurbilpena egin nahi izanez gero, zer gertatzen den jakin, erabiliko dugun tresna oso zabala izango da.



Erregistro bat edo informazio-bilketarako orri bat hautatu edo egiteko zenbait ezaugarri aintzat hartu beharra dago:

- Aurretiaz zehaztu behatuko dena
- Behatutako gertakari bakoitza deskribapen labur batera mugatu
- Behar beste deskribatu behatutako gertakariari esanahia emateko
- Gertakariak eta beren gaineko interpretazioa bereizi
- Pertsona berari buruzko zenbait informazio bildu haren izakeraren ezaugarri edo bereizagarriak ondorioztatzeko

**3.** Hirugarren urratsa behaketa-egoera zehaztea izango da. Bai egoera oso egituratua (adibidez, kreditu-txartela kutxazainean erabiltzen badakien ikusteko behaketa-aukera oso mugatuak ditugu); bai egoera naturalagoa (adibidez, motrizitate lodia behatzeko informazio aberatsa eman diezaguke joko-egoera batek). Egituraketa-maila behatu beharreko jarreren araberakoa zein erregistro-sistemaren edo behaketaren gaineko interpretazioaren araberakoa izan daiteke.

Erabaki garrantzitsua dugu behaketa nork egingo duen, batez ere, irakasleak parte hartzen duen egoera naturalez ari garenean. Horretarako ikasgelako beste profesional batek, orientatzaileak edota ikastetxeko beste edozein irakaslek laguntzea aproposa izan liteke, beti ere kanpoko batek behatu beharreko prozesuan izan dezakeen eragina gogoan izanik.

**4.** Hurrengo urratsa behaketa bera dugu. Hemen arestian aipatutako informazio-bilketaz gain, informazio hori landu eta dagozkion erabakiak hartuko ditugu.

Orain arte aipatutakoari buruzko adibide bat Bassedas y cols. (1.991)-engan topa dezakegu. Ikasgelan gertatzen den elkarrekintzako funtsezko alderdiak jasotzen dituen behaketa-gidoia proposatzen dute, ikaslearen portaera orokorrean eta azkar samar baloratzeko aukera emanez. Haien ustez hauek dira behatu beharreko alderdiak:

0.- Behaketaren testuingurua
1.- Zereginaren balorazio orokorra
2.- Ikaslearen jarrera zereginean zehar
3.- Lana burutzeko modua
4.- Ikaslearen eta irakaslearen arteko harremana
5.- Ikaskideekiko harremana
6.- Behatzailearekiko elkarrekintza
7.- Irakasleak irakaslearekin egindako iruzkinak
8.- Behaketaren balorazio orokorra
9.- Behaketaren ondorioak
10.- Orientabideak

Informazio-bilketarako tresna egokia hautatzeak duen garrantzia aipatu dugu arestian, jarraian gehien erabiltzen diren tresna-motak aurkeztuko ditugu:

Behatutakoa jasotzeko tresnak:

### *a.- Pasadizoen erregistroa:*

Portaeraren aldaketa nabarmenak eta jokamoldeetan arazoak antzeman ditzakegu honen bidez. Gertaera hauek idatziz jasotzeak ahalegin gehigarria eskatzen die irakasleei, baina horrela ez dira ikasleen jokaera eta haien elkarrekintzari buruzkoak memoriaren mende utziko. Ikastetxeko bizitzako pasadizo bereziki garrantzitsuak jasoko dira soilik. Egokia litzateke soilik alderdi txarrak jasotzeko joera gainditu eta gertakari onak ere jasotzea, hauek sustatzeko.

### *b.- Kontrol-zerrendak:*

Behaketa-adierazleen zerrenda bat da idatziko da, ezaugarri jakin bat ba ote den ala ez jasoko delarik bertan. Jokamoldeak zehatz-mehatz betetzeko eskatzen duten berariazko zereginak ebaluatzeko aproposak dira zerrenda hauek.

### *c.- Behaketa-gidak edo eskalak:*

Ikasgeletan gertatzen dena behatzeko orotariko gida batzuk finkatzea gauza korapilatsua da, izan ere, zenbait kasutan gertatutakoaren deskribapenezko behaketa egin beharko baita eta, beste batzuetan, behatutakoari buruzko ondorioak atera beharko dira.

## 4.2.- Elkarrizketa:

Teknika korapilatsu samarra dugu hau, baina informazio-bilketa egituratu eta formalizatu egiten du. Zereginen ikaskuntzarako gelan inkesta erdiegituratuak izan litezke egokienak. Aurretiaz funtsezko hainbat galdera prestatu behar dira lortu nahi dugun informazioari buruz, baina askatasuna utziko da “elkarrizketatuak” bere erantzuna nahi adina zabal dezan, galderaren inguruan beti ere.

Elkarrizketatuari zaila edo mehatxuzkoa ez zaion gai batekin hasi behar da elkarrizketa, eta atsegin, lasai eta egonarri handiko azaldu behar dugu horrek iraun bitartean. Gaiari eutsi behar zaio kontu handiz prestatutako galderak eginez. Elkarrizketatuak erantzuteari uko eginez gero ez gara behin eta berriz saiatuko hura haserrarazi arte. Elkarrizketatuak informazioa ematen eta hizketan jarrai dezan behar izaten den gauza bakarra harbera izatea eta noizean behin zehaztasun gehiago edo azalpenen bat eskatzea besterik ez da izaten.

Informazioaren zehaztasuna bermatzeko beste modu bat elkarrizketatuak emandako informazio-giltzarria errepikatu eta horrekin bat datorren ikustea da. Bestalde, informazioa **guztiz isilpean** gordeko dela eta ez dela elkarrizketatuaren aurka erabiliko ziurtatu beharra dago.

Bukatzeko, konturatu egin behar dugu galderek noiz ez diguten behar dugun informazioa ematen eta noiz gelditu behar dugun. Jarraitu baino gelditzea hobe dela adieraziko digutenak hauexek ditugu: bukatu egin dira galderak eta ez zaigu ezer gehiago bururtazen, elkarrizketatua gaia aldatzen ari da etengabe edo uko egiten dio erantzuteari edo haserretu egin da edo aurkako azaltzen zaigu,…

## 4.3.- Bestelako ebaluazio-teknikak:

### a.- Egunkaria

Irakasleari eguneroko lanean deigarrien zaizkion gertakari nabarmenenak -banakakoak zein taldekoak- jasotzean datza. Beste ebaluazio-teknika batzuen osagarri zein ondorengo azterketarako erabil daiteke, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruzko hausnarketa kokatu egiten du, egunero-egunero jasotzen baita proposatutako lana eta egin ahal izan dena, zeregin jakin batek piztu duen interesa eta abar.

### b.- Galde-sortak

Garrantzizko informazioa jasotzen da ikasleei hainbat alorri buruz egindako galderen bidez; adibidez, haien ezagutzak, jarrerak. Jasotako erantzunek burututako ikaskuntzen eta ikaskuntzon funtzionaltasunaren berri ematen dute.

Argiak, laburrak eta erantzungo duenari egokitutakoak behar dute galderek. Idatzita egoteak beste oztopo bat gehiago dakarkie zailtasun gehien duten ikasleei, horrela bada, eskatzen zaiena ulertzen lagundu beharko zaie askotan.

Hortaz, galde-sorta beteko duenari moldatuta eta lortu nahi dugun informaziora guztiz egokitua beharko du. Aukeran dagoen galde-sorta pilotik zereginen ikaskuntzarako gelarako aproposena ondokoak jasotzen dituena izan liteke: gertakari edota jazoera zehatzak, burutzen diren jarduerak, dituzten ezagutzen gaineko informazioa lortzekoak eta abar, …

Nolanahi ere, bestela lortutako informazioa beste ikuspuntu batzuekin osatzeko balio dezakete, hauen erabilgarritasuna zereginen ikaskuntzarako testuingurura mugatzen delarik.

### c.- Proba estandarizatuak

Test ere esaten zaie, ezagutza- edo trebezia-atal zabalei buruzko informazioa ematen dute, testuan erabili aurretik frogatu, aztertu eta berrikusi diren itemen bidez. Txosten honen helbururako eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetarako interesik gutxien duena izango da ziurrenik.

# 2. ZATIA

# *Hasierako ebaluaziorako materialak*

## 5.- CURRICULUMAREN-GAITASUN-MAILA

Zereginen Ikaskuntzarako Geletarako Curriculum-Esparruan eredu zabal baten alde egiten da, gizarteratze eta lan-munduratze aproposerako beharrezko gaitasunak garatzea ahalbidetzen dituzten edukiak jasotzen dituzten arloak lehenesten direlarik.

**Gaitasuna zera da: ikastetxeak eragina izango duen interbentzio-esparrua.**

Curriculum-gaitasuna zehazteak hezkuntza-arlo eta blokeen helburu eta edukien arabera ikasleak egiteko gai direna zehazteko eskatzen du. Curriculum-gaitasun hori ez da kontzeptuzko alderdiei buruzkoa soilik -zereginen ikaskuntzarako geletan ere aurki ditzakegunak, garapen kognitiboko trebetasunen lanaren baitako eduki instrumentalenetan hain zuzen ere-, baizik eta afektibitateari, gizarteari eta oreka pertsonalari dagozkion gaitasunen garapenarekin ere badute zerikusia. Zereginen Ikaskuntzarako Gelei dagokienez, prozedurazko edukien irakaskuntza-ikaskuntza nabarmendu behar da, esparru horretan ibiliko baitira ikasleak helduaroan. Hasierako ebaluazioak ikaslearen ahulgune eta indarguneen, eta ahalmenen berri emango digu.

Hona ebaluazio honen helburuak:

1.- Proposatzen zaizkion ikaskuntzen arabera zer egiten dakien zehaztu.

2.- Ikaslea ikastetxeko curriculum-proposamenaren arabera kokatu.

3.- Landu beharreko eduki eta helburuak hautatu.

4.- Curriculuma ikasgela arruntera egokitzearen eta curriculumaren gaitasun-maila ebaluatzeko prozeduren inguruko erabakiak hartu, behar duen laguntza-mota zehazteko.

Arestian ikusi denez, curriculum-gaitasuna ebaluatzeko prozedurak, askotarikoak eta ugariak badira ere -ahozko zein idatzizko probakegindako lanen berrikusketa eta azterketa, elkarrizketak eta abar-, egia da, halaber, oso tresna gutxi daudela irakasleari ikaslea curriculum-proposamenaren barruan kokatzen laguntzeko, hortaz, tutoreek beraiek kokatu beharko dituzte tresnok testuinguruan eta ikasleen eta ikastetxearen ezaugarrietara moldatu.

Zereginen Ikaskuntzarako Curriculum-Eremuan 4 esparruetarako proposaturiko ebaluazio-irizpideetan oinarrituko gara horretarako. Ebaluazio-irizpide bakoitzaren eta aipatutako ikaskuntza-edukien arteko harremana zehaztuz joan beharko dugu, curriculum-esparru bakoitzean eduki-blokeka egituratutako tresna osatuz joango garelarik.

# CURRICULUM-GAITASUNAK

- **KOMUNIKAZIO-ESPARRUA** → **Komunikaziorako eta garapen kognitiboko trebetasunak, hezkuntza-gaitasunak eta funtzionalak. Eragiketak burutzeko, arazoak ebazteko,… trebetasunak.**
- **AUTONOMIA PERTSONALAREN ESPARRUA** → **Eguneroko bizitzako trebetasunak, autonomia pertsonala eta independentzia: jana, arropa, garbitasuna… Autoestimua, norberaren irudia, norbere burua gidatzea, norbere osasuna zaintzeko ardura...**
- **GIZARTE-TREBETASUNEI ETA KOMUNITATEAN TXERTATZEARI DAGOKIEN ESPARRUA** → **Gizartera moldatzeko trebetasunak, pertsonen arteko harremanak, komunitateko zerbitzuen ezagutza, aisia eta astia, sozializazioa.**
- **LANEAN HASI AURREKO ESPARRUA** → **Lanerako ohiturak eta jarrerak, zereginak burutzeko trebeziak, lanabesen ezagutza eta erabilera, lan-mundurako roientabidea...**

Grafiko honetan curriculum-esparru ezberdinak agertzen zaizkigu, bakoitzean lantzen diren alderdi ezberdinekin batera. Ikus daitekeenez funtsean helduaroan sartzearekin zerikusia duten alderdiak jorratzen dira, hauen gizarte- eta lan-alorrak hain zuzen ere.

## 5.1.- Komunikazio-esparrua

Komunikazio-esparrua ikusmolde funtzional batetik informazioa jaso eta ulertzeko gaitasunarekin zerikusia duten alderdi guztiekin lotuta dago, baita informazio horren igorpenarekin ere, dela tresna sinbolikoen bidez (hizkuntza, edonolakoa delarik ere) edo ez sinbolikoen bidez (higidura, keinuak,...).

Zereginen ikaskuntzarako gelan eguneroko bizitzarako alderdi funtzionalekin lotzen da eduki hauen esanahia: mezu zehatzak ulertzea, behar dena eskatu ahal izatea, jarraibideak eman edo jaso ahal izatea, ohar bat idaztea, eskubide bat eskatzea…

Komunikazio-esparru honetan ondoko alderdiak lantzen dira besteak beste:

- hurbileko ingurunearekin -etxea, ikasgela, lantegia, komunitatea- zerikusia duten objektu eta irudiak harremaneten jartzeko gaitasuna.
- aginduak interpretatu eta betetzeko gaitasuna
- narrazio bateko xehetasun nabarmenenak antzemateko gaitasuna, galderak behar bezala erantzun eta egiteko gaitasuna.
- esperientziak hurrenkera sekuentzial bat jarraituz kontatzeko gaitasuna, sor daitezkeen arazoak edo egoerak konpontzeko
- inguruko jarduerak eta ezaugarriak deskribatzeko gaitasuna
- taldean aktiboki jarduteko gaitasuna
- idatzizko ulermen-gaitasuna testu bat behar bezala irakurriz, abiadura eta doinua bultzatuz, beti ere testuaren ulerkuntza nabarmenduz eta, behar izanez gero, hiztegia, telefono-aurkibideak, kale-izendegiak,… erabiliz.
- testu errazak eta beren eguneroko bizitzarekin zerikusia duten idazketak zuzen idazteko gaitasuna.
- errealitatea ulertzeko gaitasuna, denda, jatetxe, bankuetako sinboloak interpretatuz, garraioa edota telefonoa erabiliz…

Ikasleek arlo honetan dituzten gaitasunak aztertzeko alderdi esanguratsuenen zerrenda eskaintzen dizuegu. Egin dugun fitxa-ereduak hiru bloke nagusi biltzen ditu:

- Lehen blokean pertsona kokatzen da trebetasun funtzionalaren arabera, 1etik 9ra bitarteko eskala batean (ezer ez-tik beti-ra), eta hiru azpi-eskalatan banatzen da eskala hori: “ez du egiten” (1,2 eta 3) ez egite hori ñabartu ahal izateko; “laguntzarekin” (4,5 eta 6), hemen bada nolabaiteko gaitasuna, nahiz laguntzarik behar den horretarako; eta “bere kasa egiten du” (7, 8 eta 9), ikaslea ekintza burutzeko gauza da, baina izan daiteke ñabardurarik.

- Bigarren blokeak trebetasun hori landu behar ote den galdetzen du. Zenbait ikaslerentzat trebetasun funtzionala garatu ez badute ere, edo maila jakin batera arte soilik, ez da bertan burutu beharreko lana plangintzako lehentasunezko alderdia izango. Bloke honen zentzua, garaia denean erabakiak hartzea errazago egitean datza.

- Hirugarren blokea behaketetarako uzten da, eta bertan trebetasunarekin zerikusia izanik esanguratsu deritzegun eta hartu beharreko erabakietarako informazioa ematen duten alderdiak jasoko dira.

Hautatutako zenbait trebetasun funtzionaletatik abiatuta egin da proposamena, halere, tresnaren benetako erabilgarritasuna irakasle bakoitzak, ikastetxe bakoitzak landuko dituen trebetasunak zehaztu eta jasotakoak bere behar zehatzetara moldatzean ikusiko da. Hortaz, honako poposamen hau erabili aurretik zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke.

# KOMUNIKAZIO-ESPARRUA

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| Bere etxea, senideak, adiskideak, ezagunekin zerikusia duten irudiak, argazkiak, objektuak…, lantegiko objektuak, makinak eta lanabesak eta komunitate-ingurunea identifikatzen ditu. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Zailtasun-maila ezberdineko aginduak betetzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Narrazio bat edo albiste bat entzun ondoren 4/5 galdera erantzuten ditu. Historia edo albistea azaltzen du gertakari nabarmenenak aipatuz. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Bizi izandako gertakari bat edo jarduera berri bat kontatzen du hurrenkera egokia jarraituz. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Ingurunean ikusitakoa adierazten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Elkarrizketa bat burutzen du, txanda gordez, gertakizun ezagun bati buruz. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Idatzizko errotuluak edo irudiak esan nahi dutenarekin lotzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Idatzizko aginduak betetzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Egunkariko albisteak irakurri eta horri buruzko galderak erantzuten ditu ahoz | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Joko bat jokatzen du arauak irakurri ondoren | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Tresna elektrikoak abiarazten ditu funtzionamenduari buruzkoak irakurri ondoren | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Hitzak, kaleak eta telefono-zenbakiak bilatzeko ariketak burutzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Gutunak idazten ditu helburu ezberdinen arabera: lagunei zuzendua, materiala eskatzeko, komunikabideetara zuzendutako eskabidea, telegramak | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Albiste baten edo telebistako saio baten berri ematen du idatziz | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Zenbaki naturalak irakurri, idatzi eta ordenatu eta eguneroko bizitzako arazoen ebazpenarekin zerikusia duten eragiketa errazak egiten ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Zenbakizko kalkuluak burutzen ditu, prozedura ezberdinak erabiliz: algoritmoak, buruan kalkulatu, kalkulagailua. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Neurketak egiten ditu neurgailu arruntenak erabiliz, neurtu beharrekoaren izaerara hobekien egokitu arabera | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4 eragiketen prozedura matematiko egokienak erabiltzen ditu zenbaki naturalekin, arazo errazak ebazteko | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

## 5.2.- Autonomia pertsonalaren esparrua

Esparru honetan lortutako informazioak ikasleak bere burua zaintzeko dituen gaitasun generikoak zehazteko balio digu, horrela laguntzarako sistemak bilatu eta hezkuntza-sisteman txertatzeko. Ikasle bakoitzaren ohiko curriculumean egituratutako ikaskuntza bateko helburu gisa txerta badaitezke ere, familiarekin batera lan egiteak egundoko garrantzia hartzen du hemen.

Trebetasun eta abilezia guztiak biltzen ditu eta garatu nahi den ikuspegi funtzionaletik eta bizitza independientekotik, hau da, subjektuak berak egin ezean, bere ordez beste norbaitek egin beharko dituen zereginak. Honela bada, norbere buruaren zainketaz jardungo dugu: komunaren erabilpena, elikadura, norbere buruaren higienea; etxea nola eraman: artikulu egokiak hautatu, etxeko gailuen erabilera; gaixotasun arruntenei aurre hartu eta sendatu; aisia eta astialdiko jarduerak; banakako zein taldeko jokoak; dirua, ordularia eta telefonoa erabili,… Zertxobait ordenatzearren ondorengo eskeman bil genitzake:

- Eguneroko bizitzako trebetasunak,
- Autonomia pertsonala eta independentzia: janaria, jantziak, txukuntasuna…
- Autoestimua, norberaren irudia,
- Norbere burua gidatzea, norbere osasuna zaintzeko ardura...

Ikus daitekeenez eduki batzuk gizarte-trebetasunak eta komunitaterako txertatzeko trebetasunekin estaltzen dira, horregatik atal horretan uztea erabaki dugu.

**BILKETA-ORRIA**

Ikasleek arlo honetan dituzten gaitasunak aztertzeko alderdi esanguratsuenen zerrenda eskaintzen dizuegu. Egin dugun fitxa-ereduak hiru bloke nagusi biltzen ditu:

- Lehen blokean pertsona kokatzen da trebetasun funtzionalaren arabera, 1etik 9ra bitarteko eskala batean (ezer ez-tik beti-ra), eta hiru azpi-eskalatan banatzen da eskala hori: “ez du egiten” (1,2 eta 3) ez egite hori ñabartu ahal izateko; “laguntzarekin” (4,5 eta 6), hemen bada nolabaiteko gaitasuna, nahiz laguntzarik behar den horretarako; eta “bere kasa egiten du” (7, 8 eta 9), ikaslea ekintza burutzeko gauza da, baina izan daiteke ñabardurarik.

- Bigarren blokeak trebetasun hori landu behar ote den galdetzen du. Zenbait ikasleentzat trebetasun funtzionala garatu ez badute ere, edo maila jakin batera arte soilik, ez da bertan burutu beharreko lana plangintzako lehentasunezko alderdia izango. Bloke honen zentzua, garaia denean erabakiak hartzea errazago egitean datza.

- Hirugarren blokea behaketetarako uzten da, eta bertan trebetasunarekin zerikusia izanik esanguratsu deritzegun eta hartu beharreko erabakietarako informazioa ematen duten alderdiak jasoko dira.

Hautatutako zenbait trebetasun funtzionaletik abiatuta egin da proposamena, halere, tresnaren benetako erabilgarritasuna irakasle bakoitzak, ikastetxe bakoitzak landuko dituen trebetasunak zehaztu eta jasotakoak bere behar zehatzetara moldatzean ikusiko da. Hortaz, honako poposamen hau erabili aurretik zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke.

Hurrengo taulan alderdi orokorrenak jasotzen dira eta item bakoitzak hainbat trebetasun eskatzen ditu, ikasle bakoitzaren egoeraren arabera ikaskuntza egituratuaren bidez sustatu beharrekoak.

# AUTONOMIA PERTSONALAREN ESPARRUA

## ESPARRU OROKORRAK

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| 1.- Jazkera | | | | | |
| 1.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 1.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 1.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 2.-Norberaren txukuntasuna | | | | | |
| 2.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 2.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 2.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 3.- Komunaren erabilpena | | | | | |
| 3.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 3.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 3.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4.- Janaria eta etxeko lana | | | | | |
| 4.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 5.- Norbere kasako joan-etorria | | | | | |
| 5.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 5.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 5.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 6.- Objektuen erabilera | | | | | |
| 6.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 6.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 6.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 7.- Etxeko jarduerak: Telefonoa erabili... | | | | | |
| 7.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 7.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 7.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 8.- Auzoan ibili, herri-garraioak, zinema,... | | | | | |
| 8.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 8.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 8.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 9.- Diruaren erabilpena | | | | | |
| 9.1 | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 9.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 9.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 10.- Ikastetxean nola moldatzen den, eskola-aldaketa, ikaskideekiko harremana | | | | | |
| 10.1. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 10.2. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 10.3. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

Atal nagusi bakoitzaren azpian utzitako hutsuneak lanean ari garen ikasleentzako berezki garrantzitsuak diren alderdiak kokatzeko dira.

Item bakoitzak eduki desberdinak ditu, lanean dihardugun ikasleen arabera, eta horregatik eduki desberdin horiek garatuko ditugu jarraian, irakasleek beraiek egin dezaten jorratuko dituzten ikaslearen premia zehatzetara hobekien moldatzen den informazioa biltzeko orria. Adibidean item bakoitzeko hiru eduki desberdin besterik ez dira jaso, baina eredu xume bat baino ez da.

Aurreneko itemak **-jazkera-** ikaslea jantzi eta eranzteko gauza den, arropak eta oinetakokak lotu eta askatzen dituen, arropa ordenatu eta behar bezala aukeratzen duen, behar bezain maiz edo zikindutakoan janzten duen arropa garbia, botoi bat jostea bezalako ariketa errazak egiten badakien… zehazten du.

**Norberaren txukuntasuna**ren barruan garbitu, dutxatu, hortzak zaindu, xaboia erabili, hilea uretan eragin eta lehortu, garbitzeko musuzapia erabili, azkazalak moztu, hilekoaz arduratu edo bestela, bizarra moztu edo zaintzeaz, ile-apaindegira edo depilatzailearengana joan eta abar ditugu.

**Komunaren erabilpen**ean jakin nahi dugu bakarrik doan, komuneko papera badarabilen, kateatik tiratzen duen, eskuak garbitzen dituen, komuna besteentzako txukun uzten duen…

**Janaria eta etxeko lana** itemaren bidez sukaldaritzarako gaitasuna ba ote duen ikusteaz gain, mahaian beharrezko diren osagaiak (platerak, mahai-tresnak,...) ipintzen dituen; mahai-tresnak noiz kendu behar diren badakien, hondakinak zabor-ontzian husten, harrikoa egin eta ontziak gordetzen dituen, janari-dendarako zerrenda egiten badakien, ohea egiten duen eta aldiro maindireak garbitzen dituen, lurra, komunak… garbitzen eta, azken batean, etxeko lanak egiten ba ote dakien jakin nahi da.

**Norbere kasako joan-etorria**ren bidez ikusi nahi da ikaslea etxetik atera eta itzuli zailtasunik gabe egiten duen, kalea behar besteko kontuz zeharkatzen duen, behar izanez gero laguntza eskatzen duen, herri-garraioak darabiltzan, ez ohiko bidaia bat laguntzarik gabe antolatu eta burutzen duen.

**Objektuen erabilera** mota guztietako objektuak, eskuzko zein elektrikoak, etxekoak edo ikasgelakoak, aisia-gunekoak… eguneroko bizitzan nola erabiltzen dituen aztertzen du.

**Etxeko jarduera**k etxeko orientabide eta portaerari buruzkoak eta aisialdiaren erabilerari buruzkoak biltzen ditu: telebista, zaletasunak,… auzokoekiko elkarrekintza, etxeko segurtasuna, nahiago dena edo beharrizanak jakinaraztea,…

**Diruaren erabilpena** etxeko ekonomiaz eta norberaren ekonomiaz dihardu: behar izango duen dirua kalkulatu, nahi duen zerbaiterako aurreztu, gastuak antolatu dirua parra-parra xahutu gabe eta zorrez bete gabe, non eta nola ordaindu ikasi.

Azkeneko itemak **-ikastetxeko moldaera-** orduak ezagutu eta betetzea, ordu-aldaketa, ikastetxeko gune ezberdinak erabili, ikaskideekiko harreman eta jokoak, taldekako jarduеretan parte hartu, bat-batean elkarrizketetan parte hartu, irakasleen aginduak bete, haserreari eutsi, txanda itxaron… egiten dituen aztertzen du.

## 5.3.- Gizarte-trebetasunei eta gizartean eta komunitatean txertatzeari dagokien esparrua

Gizarte-trebetasunak beste pertsona batzuekiko gizarte-elkarrekintzarekin lotuta daude, besteak beste: besteekiko elkarrekintza bati ekin, eutsi eta etetea; egoerak eskatu bezala jokatzea; sentimenduak antzematea, feedback positibo eta negatiboa ematea, norberaren jokamoldea arautzea, bere berdinak daudela konturatu eta haiek onartzea; besteekiko elkarrekintza-kopurua eta mota neurtzea, besteei laguntzea, lagunak egin eta gordetzea; besteen eskakizunak betetzea, besteekin banatzea; zintzotasunaren esanahia ulertzea; inpultsuak kontrolpean gordetzea; jokamoldea arauetara moldatzea, arauak eta legeak haustea; gizartean onargarria den sexu-jokamoldea erakustea.

Esparru honetan lau tresna ditugu informazioa biltzeko, alderdi guztiak lantzen diren esparru zabala baita. Lau tresna horiek ondorengo eremuetatik jasotzen dute informazioa:

- Gizarte-trebetasunak eta pertsonen arteko harremanei buruzkoak,
- Komunitateko zerbitzuen ezagutza,
- Aisia eta astia,

**B I L K E T A - O R R I A**

Ikasleek arlo honetan dituzten gaitasunak aztertzeko alderdi esanguratsuenen zerrenda eskaintzen dizuegu. Egin dugun fitxa-ereduak hiru bloke nagusi biltzen ditu:

- Lehen blokean pertsona kokatzen da trebetasun funtzionalaren arabera, 1etik 9ra bitarteko eskala batean (ezer ez-tik beti-ra), eta hiru azpi-eskalatan banatzen da eskala hori: “ez du egiten” (1,2 eta 3) ez egite hori ñabartu ahal izateko; “laguntzarekin” (4,5 eta 6), hemen bada nolabaiteko gaitasuna, nahiz laguntzarik behar den horretarako; eta “bere kasa egiten du” (7, 8 eta 9), ikaslea ekintza burutzeko gauza da, baina izan daiteke ñabardurarik.

- Bigarren blokeak trebetasun hori landu behar ote den galdetzen du. Zenbait ikaslerentzat trebetasun funtzionala garatu ez badute ere, edo maila jakin batera arte soilik, ez da bertan burutu beharreko lana plangintzako lehentasunezko alderdia izango. Bloke honen zentzua, garaia denean erabakiak hartzea errazago egitean datza.

- Hirugarren blokea behaketetarako uzten da, eta bertan trebetasunarekin zerikusia izanik esanguratsu deritzegun eta hartu beharreko erabakietarako informazioa ematen duten alderdiak jasoko dira.

Hautatutako zenbait trebetasun funtzionaletatik abiatuta egin da proposamena, halere, tresnaren benetako erabilgarritasuna irakasle bakoitzak, ikastetxe bakoitzak landuko dituen trebetasunak zehaztu eta jasotakoak bere behar zehatzetara moldatzean ikusiko da. Hortaz, honako poposamen hau erabili aurretik zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke.

# GIZARTE-TREBETASUNEI ETA GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN TXERTATZEARI DAGOKION ESPARRUA

## Gizarte-gaitasunak eta pertsonen arteko harremanei buruzkoak

Atal honetan beste pertsona batzuekiko harremanei dagozkien gizarte-trebetasunei eta harremanok eskatu ohi dituzten gizarte-arauei buruzko gizarte-trebetasunak jasotzen dira. Nabarmenenak aipatzen dira azaletik, adierazle orokor gisa erabil daitezkeelarik, baina premia zehatzei dagokienez, askoz gehiago zedarritu beharko litzateke, batez ere ikasle jakin batekin lan egingo denean.

### GIZARTE-GAITASUNAK ETA PERTSONEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKOAK

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| 1.- Elkarrizketa bat hasi, eutsi eta bukatu egiten du. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 2.- Egoerak eskatu bezala jokatzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 3.- Sentimenduak antzematen ditu. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4.- Bere berdinak daudela konturatzen da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 5.- Lagunak egin eta gordetzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 6.- Inpultsuak kontrolpean gordetzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 7.- Bere jokamoldea arauetara moldatzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 8.- Gizartearentzat onargarri den sexu-jarrera erakusten du. | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 9.- Nahiago duena eta behar duena jakinarazten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 10.- Txanda itxoiten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 11.- Bere gizarte inguruneko hainbat pertsonarekin hitzordu bat adosten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 12.- Garaiz iristen da beste batzuekin aurretiaz adostutako hitzordu eta bileretara | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 13.- Beste pertsona batzuen erabaki, jokaera edo iritziekin bat datorrela adierazten du, zergatia azalduz | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 14.- Beste pertsona batzuen erabaki, jokaera edo iritziekin bat ez datorrela adierazten du, zergatia azalduz | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

### Komunitateko zerbitzuen ezagutza

Azpiatal honetan komunitateko zerbitzuen erabilpen egokiarekin zerikusia daukaten trebetasunak aztertzen dira, besteak beste, garraioa, dendetan, saltoki handietan eta supermerkatuetan erostea, komunitateko beste zerbitzu batzuen erabilpena (adibidez, mediku-kontsultategiak, konponketa-dendak); herri-garraioa, liburutegiak, parkeak eta jolastokiak, kale eta espazioak erabiltzea, antzokira joatea, beste leku batzuk edo kultur-ekitaldiak ikustera joatea.

Komunitatearen baitako jokamoldea ere aztertzen da, nahiago dena eta beharrizanak jakinaraztea, gizarte-elkarrekintza eta hezkuntza-trebetasun funtzionalen erabilera.

## GIZARTE-TREBETASUNEI ETA GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN TXERTATZEARI DAGOKIEN ESPARRUA

### KOMUNITATEKO ZERBITZUEN EZAGUTZA

| GAITASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| 1.- Garraioa erabiltzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 2.- Erosketak egiten ditu denda eta supermerkatuetan | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 3.- Bestelako zerbitzuak ere badarabiltza, esaterako, mediku-kontsultategiak, konponketa-dendak,… | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4.- Beste leku batzuk eta kultur-ekitaldiak ikustera joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 5.- Zinemara, antzokira eta bestelakoetara joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 6.-Behar bezalako elkarrekintza burutzen du auzokoekin | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 7.- Tokiaren arabera egokiak diren jarduerak hasten ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 8.- Kalea zeharkatzen du, badaki laguntza eskatzen behar izanez gero | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 9.- Komunitateko aisialdi-aukerak erabili eta gozatzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 10. Erosketetara joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 11. Bankura joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 12. Telefonoa erabiltzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 13. Herri-garraioa erabiltzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 14. Zirkulazio-arauak ezagutzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 15. Aisialdi-elkarteetara joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

**Astia eta aisia.-**

Aisia eta astiako interes desberdinen garapena azterketzen da hemen (esate baterako, bakarrik edo besteekin entretenitzea), bakoitzaren lehentasunak eta hautespenak jasotzen dira eta, jarduera jendaurrean egin ahal izanez gero, adina eta kulturarekin lotutako arauak betetzen dituen. Trebetasunok norbere kasako hautespen eta interesak, etxeko eta komunitateko aisia-aukerak jolaserako jarduerak, bakarka zein taldean, erabili eta gozatzea, beste batzuekin batera jolastea, txanda itxoitea, aisia edo jolaserako jarduerak bukatu edo arbuiatzea, partehartzeko denbora luzatu eta interes, ezagutza eta trebetasun-sorta handitzea ditugu besteak beste:

Alor honekin zerikusia duten jardueren artean ondokoak ditugu: aisia eta astiako guneetan behar bezala jokatzea, nahiago dutena edo behar dutena jakinaraztea, hezkuntza-gaitasun funtzionalak erabiltzea eta mugikortasun-gaitasunak erakustea.

# GIZARTE-TREBETASUNEI ETA GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN TXERTATZEARI DAGOKION ESPARRUA

## AISIA ETA ASTIA

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| Bere kabuz moldatzen da auzoan | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Bere kabuz joaten da kiroldegira | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Kirol--ekitaldietan parte hartzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Jai eta ospakizunetara joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Kartetan edo bestelako jokoetan jokatzen da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Musika-jardueretan parte hartzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Paseatzera edo parkera joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Eserita dago edo atseden hartzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Irratia edo diskoak entzuten ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Telebista ikusten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Erosketetara joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Eskulanak egiten ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Senideak ikustera joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Lagunekin bazkaltzera ateratzen da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Zinemara, kontzertuetara edo antzokira joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Lagunak ikustera joaten da | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

## 5.4.- Lan-esparrua

Lan baten garapenarekin lotutako trebetasunak jasotzen dira esparru honetan, lanerako berariazko trebetasunei, gizartean erakutsitako jokamolde egokiari eta lanarekin zerikusia duten trebetasunei dagokienean (adibidez: zereginak bukatzea, ordutegiak ezagutzea, laguntza bilatzeko trebetasunak, kritikak jaso eta trebetasunak hobetzea; diru-baliabideak bilatzea eta beste zenbait hezkuntza-gaitasun funtzional erabiltzea). Trebetasun hauek denak lanerako joan-etorriarekin, prestakuntzarekin, lanean gauden bitartean moldatzeko moduarekin eta lankideekiko elkarrekintzarekin lotuta daude.

Bi sail handitan banatu da esparru hau, zereginen ikaskuntzarako geletako curriculum binakin bat datozenak:

- Lanean hasi aurreko prestakuntza
- Lanerako oinarrizko prestakuntza

B I L K E T A - O R R I A

Ikasleek arlo honetan dituzten gaitasunak aztertzeko alderdi esanguratsuenen zerrenda eskaintzen dizuegu. Egin dugun fitxa-ereduak hiru bloke nagusi biltzen ditu:

- Lehen blokean pertsona kokatzen da trebetasun funtzionalaren arabera, 1etik 9ra bitarteko eskala batean (ezer ez-tik beti-ra), eta hiru azpi-eskalatan banatzen da eskala hori: "ez du egiten" (1,2 eta 3) ez egite hori ñabartu ahal izateko; "laguntzarekin" (4,5 eta 6), hemen bada nolabaiteko gaitasuna, nahiz laguntzarik behar den horretarako; eta "bere kasa egiten du" (7, 8 eta 9), ikaslea ekintza burutzeko gauza da, baina izan daiteke ñabardurarik.
- Bigarren blokeak trebetasun hori landu behar ote den galdetzen du. Zenbait ikaslerentzat trebetasun funtzionala garatu ez badute ere, edo maila jakin batera arte soilik, ez da bertan burutu beharreko lana plangintzako lehentasunezko alderdia izango. Bloke honen zentzua, garaia denean erabakiak hartzea errazago egitean datza..
- Hirugarren blokea behaketetarako uzten da, eta bertan trebetasunarekin zerikusia izanik esanguratsu deritzegun eta hartu beharreko erabakietarako informazioa ematen duten alderdiak jasoko dira.

Hautatutako zenbait trebetasun funtzionaletatik abiatuta egin da proposamena, halere, tresnaren benetako erabilgarritasuna irakasle bakoitzak, ikastetxe bakoitzak landuko dituen trebetasunak zehaztu eta jasotakoak bere behar zehatzetara moldatzean ikusiko da. Hortaz, honako poposamen hau erabili aurretik zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke..

## Lanean hasi aurreko prestakuntza

Lantegietako lanetan ohikoak diren informazioak jaso ditugu, lan-munduan aintzat izan beharreko alderdi orokorrekin eta arauekin zerikusia dutenak. Hurrengo eremuarekiko aldea lan-arloko jarduera edo trebetasunetan ez oinarritzean datza.

# LAN-ESPARRUA

### LANEAN HASI AURREKO PRESTAKUNTZA

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntzarekin | Bere kasa | | |
| 1.- Zereginak bukatzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 2.- Ordutegiak badakizki eta betetzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 3.- Badaki trebetasunak hobetzeko egiten zaizkion kritikak jasaten | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 4.- Behar bezala jokatzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 5.- Etekina ateratzen dio lanari | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 6.- Segurtasun- eta higiene-arauak betetzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 7.- Txukuna da lanabes eta tresnekin | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 8.- Badu lana bilatzeko trebeziarik | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 9.- Tresnak ezagutu eta erabiltzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| 10.- Arazo bat konpontzeko alternatibak bilatzen ditu | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

## Lanerako oinarrizko prestakuntza

Atal honetan lantegi profesionaletan maizen agertzen diren jokamoldeak eta erantzunak zenbateraino bereganatu dituen neurtu nahi da, esaterako, ekipamendu eta tresneriaren izenak, oinarrizko eragiketa balioaniztunak egiteko nola erabiltzen diren jakitea,… eta komunitatean dauden lantokiak ikustera joan eta ezagutzea.

Argi eta garbi dagoenez, aurretiaz zereginen ikaskuntzarako geletan egondako ikasleen edo bertan urtebete besterik egingo ez duten ikasleen hasierako ebaluazioan agertuko zaizkigu alderdiok.

### LAN-ESPARRUA:

**LANERAKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA**

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| Egindako lana egiaztatzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Hautatu, aukeratu eta baztertu egiten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki zenbatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki batzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki neurtzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki sailkatzen eta ordenatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Identifikatu eta ezagutu egiten du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki binaka biltzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Mailua erabiltzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

**...jarraipena**

| TREBETASUN FUNTZIONALA | LORPENA | | | Landu egin behar da | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ez du egiten | Laguntz arekin | Bere kasa | | |
| Badaki ateratzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki sakatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki iltzatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki torlojuz lotzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki torlojuak ateratzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki soldatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki ahokatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki lixatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki hedatzen eta tentetzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Zerra erabiltzen du | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki josten | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki tapizatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki grapaz josten | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki krokatzen | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki mozten | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki tolesten | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |
| Badaki itsasten | 1 2 3 | 4 5 6 | 7 8 9 | | |

# 6.- IKASLEEI ETA BEREN INGURUNEARI BURUZKO INFORMAZIOA:

## 6.1 Ikasleen ebaluazioa

Zereginen Ikaskuntzarako Geletako ikasleen hasierako ebaluazioak ikasle bakoitzaren ikaskuntzak, trebetasunak eta interesak zeintzuk diren jaso behar du, ikaskuntzen garrantziaren berri emango digun ebaluazio orientatzailea izango da, irakaskuntza-ikaskuntzako estrategiak aldatzea eta banakako orientabidea ahalbidetuko dituelarik. Ikasle bakoitzari buruz jasotako informazioen balorazio funtsean koalitatibo gisa ulertu behar da ebaluazio hau.

Helburuetan zehaztutako gaitasunak zenbateraino bereganatu diren neurtzeko aukera ematen du ebaluazioak. Ikuspegi horretatik, jarduera-planak aldatzeko, berariazko baliabideak programatzeko, tutoretza orientatzeko, familiekin batera burutu beharreko estrategiak diseinatzeko,… erabil daitekeen hezkuntza-baliabide gisa ulertzen da ebaluazioa.

Ondoko grafikoan ikaslearen premiak modu egokian ase ahal izateko hari buruz zer-nolako informazioa jaso behar den jasotzen da:



Ikasleen oinarrizko gaitasunetarako aurrenako hurbilketa egiteko tresna soila aurkezten dizuegu jarraian agertzen den laukian, bertan funtsezko gaitasunak jasotzen dira lantegian proposatutako ariketen bidez neurtu ahal izateko.

Gaitasunok muntaketa, objektuen bereizketa, kateen simulazioa eta abar bezalako zereginak behar bezala burutzearekin dute zerikusia hein handi batean.

## FUNTSEZKO GAITASUNAK

| | | |
|---|---|---|
| **1.- IKUSMENAREN AZKARTASUNA:** Objektu-kopuru mugatua ezagutzen du | 1 2 3 4 5 | Ikusmen-azkartasun handia |
| **2.- KOLORE, FORMA ETA TAMAINEN BEREIZKETA:** Ez du kolore, forma edo tamainen arabera bereizten edo multzokatzen | 1 2 3 4 5 | Kolorea, forma eta tamaina bereizten ditu |
| **3.- PAREKOTASUNAK ETA ALDEAK** Ez du parekotasun/alderik atzematen | 1 2 3 4 5 | Parekotasunak/aldeak atzematen ditu denbora-epe laburrean |
| **4.- ESPAZIOAN ORIENTATZEA:** Espazioan desorientazio handia dauka | 1 2 3 4 5 | Primeran orientatzen da espazioan |
| **5.- ZENBAKIEN EZAGUTZA:** Ez du kopurua, zenbakia eta neurria kontzeptuak erabiltzen | 1 2 3 4 5 | Arazoak ebazteko eragiketa matematikoez baliatzen da |
| **6.- ZEREGINEN IKASKUNTZA:** Ez da inolaz ere zereginak bereganatzeko gai | 1 2 3 4 5 | Zereginak bereganatzeko gaitasun handia |
| **7.- INFORMAZIO TRUKEA:** Jarraibide errazak jarraitzeko zailtasunak | 1 2 3 4 5 | Agindu konplexuak ulertzen ditu. Adierazpen-maila ona. |

### 6.1.1.- Motibazioa

Curriculum-gaitasunarekin batera, ikaskuntza erraztu edo zaildu dezaketen alderdiei buruzko informazioa lortu beharra dago, besteak beste, ikasteko motibazioa eta estiloa. Ikasleak zer egin duen ezezik, nola egiten duen ere interesatzen zaigu.

Ikasleen aurrerabidea irakasleen jardueraren araberakoa izango da hein handi batean. Ikasleak motibatzeko gaitasunak, proposatzen dituzten jarduerek, darabiltzaten metodologia eta baliabideek programatutako jarduerak beregangatzeko maila baldintzatuko dute. Ikaslearen aurrerapena baldintzatzen duten faktore guztiak gogoan hartuko dira. Esaterako:

1.- **Zereginak burutzeko** zer-nolako multzoketak **nahiago dituen:** talde handia/txikia, banakakako lana,… **para la realización de tareas**.

2.- Zein arloetan eta nolako jardueretan duen interesa eta **segurtasunik handiena.**

3.- **Zereginaren zailtasun-maila**:

- Laguntza izanik ere akats asko egiten baditu, bere ahalmenetatik urrun dauden seinale da eta etsipena eta motibaziorik eza eragingo diote etengabe.
- Zereginak behin eta berriz eginez gero ikasleek ez dute inongo erronkarik ikusiko errazegi izango baitzaizkie.
- Zeregin aproposenak ikasleen aurretiazko ezagutzak aintzat hartu, ikasleei erronka interesgarria aurkeztu eta, ondorioz, badakitenaren eta ikasi behar dutenaren arteko distantzia egokian kokatzen dituztenak dira.

Aurretiaz aipatu dugunez, motibazio-maila irakasleek ikaskuntza burutu dadin darabiltzaten aldagaien araberakoa izango da, hots, erakargarri egitea, darabiltzaten metodologia, proposaturiko ariketa-mota,…

Ikasgelan burututako jarduerek ikasleengan sortutako emaitza desberdinak jasotzen dituen baieztapen-zerrenda aurkezten dugu jarraian. Item bakoitzaren eskubitan 1etik 6rako eskala agertzen da. 1ek “inolaz ere ados ez” esan nahi du eta 6k “guztiz ados”. Irakasleak item bakoitzean esaten denarekin duen adostasun-maila hobekien adierazten duen zenbakia biribildu beharko du. Hautatutako zenbaki guztiak goitik behera elkartuta, burututako jarduerek ikasleengan eragindako emaitzen-profila lortzen da.

*Adieraz ezazu ondokoarekiko duzun adostasun-maila:*

| Ikasgelan proposatzen ditudan ariketak | Batere ados ez — Guztiz ados | OHARRAK |
|---|---|---|
| 1. Ikasleei ariketa egiterakoan hautatzeko aukerak ematen zaie. | 1 2 3 4 5 6 | |
| 2. Ikasleei ikaskuntza-egoeretan betekizun aktiboak egokitzen dizkiete pasiboak beharrean | 1 2 3 4 5 6 | |
| 3. Ikasleei eguneroko arazoetan, pertsonalak zein taldekoak, prozesuak erabiltzeko eskatzen diete | 1 2 3 4 5 6 | |
| 4. Ikasleek objektu, material, tramankulu eta benetako egoerekin jardutea ahalbidetzen dute | 1 2 3 4 5 6 | |
| 5. Ikasleek arrakasktaz burutu ditzakete ariektak trebetasun-maila ezberdinetan | 1 2 3 4 5 6 | |
| 6. Sortu zaien arazo bati aurre egiteko prozesu intelektual batez baliatzeko eskatzen diete ikasleei | 1 2 3 4 5 6 | |
| 7. Eguneroko bizitzarako erabilgarri izango zaizkien trebetasunak ikasteko eskatzen diete ikasleei | 1 2 3 4 5 6 | |
| 8. Ikasleek zein irakasleek arrakasta izan edo porrot egiteko arriskua izateari bide ematen diote | 1 2 3 4 5 6 | |
| 9. Ikasleek hasierako ahaleginak berregin, berrikusi edota hobe ditzaten eskatzen dute | 1 2 3 4 5 6 | |
| 10. Ikasleak trebetasun, estandar edo egoera esanguratsuak aplikatu eta menperatzeaz arduratu daitezen suspertzen ditu | 1 2 3 4 5 6 | |
| 11. Ikasleei curriculuma egokituz beste batzuekin proiektu baten plangintza, gauzapena edo jarduera baten emaitzak banatzeko aukera ematen die | 1 2 3 4 5 6 | |
| 12. Zereginen ikaskuntzarako geletarako adierazitako helburuen arabera garrantzitsuen direnak dira | 1 2 3 4 5 6 | |

Iturria: “Materiales para la evaluación del contexto educativo”. Euskal Herriko Unibertsitateko HEZI eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Saileko IBE.

### 6.1.2. Ikaskuntza-estiloak

Ikaskuntza-estiloen barruan pertsona baten ikasteko modua eta informazioa prozesatzeko modu ezberdinak biltzen ditu:

1.- **Arreta-maila:** jarduera batean arreta zenbat denboran zehar jar dezakeen, ikaslearen arreta nola lor dezakegun.

2.- Zereginak ebazteko darabiltzan **baliabideak, akats-mota** usuenak.

3.- **Zer-nolako laguntzak** erabilita erantzuten duen, burututakoarekiko poztasun-maila.

Jarraian hainbat adierazle zehazten dituen adibide bat aurkezten dizuegu, ikaskuntza-mota bakoitzaren ezagutza errazteko.

## IKASKUNTZA-ESTILOAK

| ADIERAZLEAK | Balorazioa/Aukerak |
|---|---|
| 1.- Zer-nolako jardueretan dauka interesa, dago erosoen? | |
| 2.- Zer estrategia darabiltza ikaskuntzan: ikusmena, entzumena,… | |
| 3.- Zer baliabide darabiltza | |
| 4.- Zer-nolako laguntzekin erantzuten du | |
| 5.- Ba al du ikasteko motibaziorik? Zerk motibatzen du gehien? | |
| 6.- Arauak onartu eta betetzen ditu | |
| 7.- Bere lana ebaluatu eta akatsik aurkituz gero zuzentzeko gai da | |
| 8.- Zein akats egiten ditu maizen | |
| 9.- Nahiago du talde handian, txikian edo bakarka lan egin? | |
| 10.- Eguneko zein garaitan eta zein jarduerekin jartzen du arreta gehien. Nola lortzen da bere arreta. | |
| 11.- Zein prozedura eta jarduerak suspertzen dute gehien | |
| 12.- Badu ekimena | |
| 13.- Zereginari heltzeko garaian erregularki egiten du lan, lanak ditu burutzeko, ahalegintzen da ikasten | |
| 14.- Nolako ikaskuntza-erritmoa dauka | |

Carrascosa y cols. (1.991)-k ikaskuntza-estiloak atzemateko ebaluatu beharreko alderdiei buruz egindako eredua aurkezten digu Verdugo, M.A.-k.



## 6.2 Ikasleen inguruneari buruzko informazioa

Hezkuntza-premia bereziez dihardugunean gizabanakoaren premiez ezezik, gizabanako hori bizi deneko testuinguruaz ere ari gara, izan ere, dituen zailtasunen jatorriak, gizabanakoarenak berarenak ukatu gabe ere, elkarrekintzazko izaera baitauka. Esate baterako, arrapala bat eraikitzeak (ingurunearen aldakuntza) gurpildun aulkian dihoanari sarbidea ahalbidetzen dio. Hasiera batean gizabanakoaren zailtasuntzat hartzen zena ez da gehiago halakotzat hartuko, ingurunearen hutsa baita berez.

Ikuspegi honetatik erlatiboak dira hezkuntza premia bereziak, gainera ingurunearen aldakuntzek ikasle guztiei komun zaizkien helburuak lortzeko eskueran ditugun baliabideen mende daude (Weder, 1.981).

Horrenbestez, ***ingurunea*** “pertsona bizi, jokatu, lan egin, gizarteratu eta elkarreragiten duen tokiak” dira eta proposatzen den helburua hezkuntza-alorrekoa denean, 5 azpi-ingurunetan kokatu behar dira: etxea, eskola, aisia, komunitatea, lantokia, pertsona oro bizi eta garatzen deneko bizitzako eremu guztiak hartzen direlarik. Eredu honek modu orekatuagoan hartzen ditu norbanakoen gaitasunak eta ingurune jakin batzuen eskaera eta mugak.

Jarraian agertzen den koadroa 5 ingurune esanguratsuak eta Zereginen Ikaskuntzarako Geletarako proposatutako curriculum-esparruak azaletik harremantzen saiatzen da. Esparru bakoitzean jorratzen diren eta eguneroko bizitzan ingurune zehatzak eskatzen dituzten alderdien arabera harremandu dira. Era berean, ikaskuntza hauek zein ingurunetan indartu beharko diren gogoan hartzeko balio du.

| | | GAITASUN-ARDATZAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **KOMUNIKAZIOA** | **AUTONOMIA PERTSONALA** | **GIZARTE-TREBETASUNAK ETA KOMUNITATEAN TXERTATZEA** | **LANEAN HASI AURREKOA** |
| **INGURUNEA** | **ETXEA** | -Elkarrizketa bat izan<br>-Nahiago dena edo behar dena jakinarazi<br>-Informazioa jakinarazi<br>-Ulermena: aginduak, telebista, irratia<br>-Telefonoz utzitako ohar bat hartu | - Segurtasuna etxean<br>-Txukuntasuna, janaria, jazkera, higienea eta itxura<br>-Jantzien zainketa<br>-Etxeko lanak<br>-Jakien prestakuntza<br>-Osasunaren zainketa | -Etxeko eta auzaguneko orientazio eta jokamoldea<br>-Premiak adieraztea<br>-Gizarte-elkarrekintza<br>-Besteei laguntzea<br>-Lagunak egin eta gordetzea | -Etxeko lanak (konponketa errazak) |
| | **ESKOLA** | **-Irakurmena, idazmena**<br>**-Kalkulua**<br>**-Hezkuntza-trebetasun funtzionalak eskuratu norbere kasako bizitza egiteko** | **-Orientabidea ikastetxean**<br>**-Ordutegia betetzea**<br>**-Zereginak burutzea** | **-Gizarte-trukeak ikaskideekin**<br>**-Sentimenduak antzematea** | **-Norbere burua gidatzea**<br>**-Ardura**<br>**-Etekina** |
| | **AISIA** | -Nahiago denaren eta hautespen pertsonalen berri eman<br>-Etxean aisiaz gozatu | -Bakarkako entretenimendua<br>-Parkeen eta jolasguneen erabilera (kiroldegiak)<br>-Zinemara, antzokira, erakusketetara… joatea | -Entretenimendua besteekin<br>-Beste batzuekin jolastea<br>-Aisiguneetan behar bezala jokatzea<br>- Aisiako jarduerak arbuiatzea | |
| | **KOMUNITATEA** | -Denda eta supermerkatuetan erosi<br>-Beharrizanak jakinarazi<br>-Zorionak, arbuioa, aholku bat, emozio bat ulertu eta adierazi | -Norberaren jokamoldea arautzea<br>-Inpultsuak kontrolatzea<br>-Garraioaren erabilpena<br>-Arazoak konpontzea<br>-Kaleak zeharkatzea | -Besteekiko elkarrekintza-kopurua eta mota neurtzea<br>-Jokamoldea arauetara egokitzea<br>-Hezkuntza-trebetasun akademikoen erabilpena<br>-Sexualitatea | -Zereginak burutzea<br>-Ordutegiak ezagutzea<br>-Diruaren erabilpena<br>-Diru-baliabideak bilatzea |
| | **LANEAN HASI AURREKOA** | -Laguntza eskatzeko trebetasunak | -Norberaren moldaera lanean ari den bitartean<br>-Arazoak konpontzea<br>-Lehen laguntzak | -Kritikak jasotzea<br>-Lankideekiko elkarrekintza<br>-Besteen eskakizunei erantzutea | -Berariazko lan-trebetasunak<br>-Hezkuntza-gaitasun funtzionalak lan-munduan erabiltzea<br>-Segurtasun-arauak |

Ingurune-kontzeptuarekin batera testuinguru-kontzeptua aurkitzen dugu. Azken honek pertsona bat kokatzen deneko esparruari egiten dio erreferentzia, eta hortaz garrantzi handia dauka pertsona horren garapenean, areago ikaskuntzaz ari garenean.

Ikaslearekin berarekin zerikusia duten alderdiak ebaluatzeaz gain, ikaskuntza burutzen deneko testuinguru fisiko eta pertsonalari buruzko informazioa lortu beharra dago. Ikuspegi honetatik, ikaslearen ebaluazioa bizi eta ikasten dueneko testuinguruaren, eskueran dauden baliabide material zein pertsonalen, ikasgelaren antolamenduaren eta abarren ebaluazioarekin osatu beharko da. Testuinguruaren ebaluazio hau mugatu samarra izango da hasieran eta ikasturte osoan zehar jasoko da informazioa. Alderdi garrantzitsuenak ondoko koadroan agertzen dira.

| TESTUINGURUAREN EBALUAZIOA | | |
|---|---|---|
| **GELA ARRUNTA ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO GELA** | **IKASTETXEA** | **GIZARTE- ETA FAMILIA-TESTUINGURUA** |
| ◆ Gure praktika profesionala: irakaskuntza-estiloa, darabiltzagun materialak, eskaintzen ditugun laguntzak, sortzen dugun harreman-giroa | ◆ Ikastetxeko irakasleek integrazioaz duten iritzia, erraztu edo zailtzen duten antolakuntzako alderdiak: espazioen banaketa, ordutegiak, laguntzarako pertsonala, materiala,… | ◆ Ikasgela arruntetan, ACIak barne, denboraldiak ematearen egokitasuna |

### 6.2.1.- Ikasgela arrunta edota zereginen ikaskuntzarako gela

Atal honi Zereginen Ikaskuntzarako Gelan parte hartzen duten irakasleen ikuspegitik heldu zaio eta ikasleengandik lortutako informazioa osatu nahi du, ikasle bakoitzaren premia eta desberdintasunetara egokitzeko aukera ematen diguten curriculumaren osagaiak aztertuz.

| ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|
| **1.- Espazio fisikoa:** | |
| - Ikasgelen baldintza fisikoak eta giroari buruzkoak | |
| - Premia duten ikasleentzako egokitzapen ergonomikoak. | |
| - Altzarien kokapena eta mota | |
| - Baliabide egokiak badauden ala ez. Zeintzuk dira egokiak, zeintzuk ezinbestekoak. | |
| **2.- Giza-baliabideak:** | |
| - Hezkuntza-material egokiak erabiltzen dira. | |
| - Ikasleak taldekatzeko irizpide malguak. | |
| - Irakasleen jarrera integrazioarekiko | |
| - Sortzen duen harreman-giroa. | |
| **3.- Proposatutako jarduerak:** | |
| - Argiak izan dira. | |
| - Ikasleen mailara egokitu zaizkio. | |
| - Lortu nahi zenarekiko koherenteak eta motibazio-sortzaileak izan dira. | |
| - Behar bezain ugari eta desberdinak izan dira. | |

### 6.2.2.- Ikastetxea

Ikastetxearen ezaugarriak, non kokatua dagoen, irakasleen arteko harreman-giroa, integrazioarekiko duten jarrera,... ezagutzeak ikastetxeari hezkuntzazko onura ateratzeko eta zenbait jardueratarako ikasgela arruntetan edo ikastetxeko bizitza orokorrean txertatzeko aukera ematen du.

| ADIERAZLEAK | OHARRAK |
|---|---|
| - Ikastetxearen gizarte- eta kultur ingurunearen ezaugarriak: maila ekonomikoa, ekipamendu eta baliabideak,… | |
| - Gizarte-eskasia nagusiak | |
| - Harreman-giroa irakasleen, ikasleen, zuzendaritzaren eta abarren artean. | |
| - Ekipamendu guztiak erabiltzeko aukera. | |
| - Irakasleek Zereginen Ikaskuntzarako Gelako ikasleen integraziarekiko duten konpromisoa. | |
| - Nola antolatzen dira espazioak, ordutegiak, langileak, materialak,… | |

### 6.2.3.- Gizarte- eta familia-testuingurua

Esparru honetan lortutako informazioak familiak ikaslearen programan laguntzeko aukera ematen digu. Egoera horren ezagutzari esker autonomia pertsonalari eta ohiturak sortzeari dagozkien helburuak osatu ahal izango ditugu, hezkuntza-eremuan lortzen zailak izanagatik ere familian eta gizarte- eta komunitate-esparruetan ezinbestekoak diren helburuak hain zuzen. Horretantxe datza familiaren eta ikastetxearen artean harreman estua izatearen garrantzia. Bestetik, ahal den heinean, hezkuntza-programa eraikitzen ari garenean galdera zuzenak eta behar ez direnak saihestu beharko dira, komunikazio-giro erosoa sortu eta guraso eta irakasleen arteko lankidetzarako oinarriak finkatzeko. Aipatu beharra dago zenbait informazio isilpean gorde beharrekoak direla, eta dagokion bezala jokatu beharko dugula beraz.

Informazioa lortzeko beste bide bat, zeharka baina aurrekoa bezain egokia, Ikastetxeko bertako Orientabide-Zerbitzura jotzea dugu.

